

Kontzeju

www.oiñaci.eus



Berbia Oñaci



@BerbiaOñaci



oiñaci@oiñaci.eus



0943 99 00 00

Oñaciko Udal aldizkaria | 2017ko Otsaila | 269. zenbakia




DEGIK



INGURUMEN JARDUNALDIAK

Biodibertsitatearen garrantzia aztergai Natur Eskolaren eskutik.
Okilei buruzko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxean.



100 URTE bete ditu Gernikako haritzak

1917KO OTSAILAREN 2AN LANDATU ZUTEN GERNIKAKO ARBOLAREN


KIMUA, OÑATIARREK FORUEKIKO ZUTEN ERRESPETUAREN IKUR GISA

XX. mende hasireko kroniketan irakur daitekeenez, Oñati beti nabarmendu izan zen foruekiko maitasunagatik. Horren erakusle, gure arbasoek herriko plazari Foruen Enparantza izena jarri izana, Euskal Herriaren eskubideen oroimena bizirik mantentzeko helburuarekin.

Arazoi beragatik, udal ordezkariak behin baino gehiagotan adierazia zuten Gernikako haritzaren kimu bat Oñatin edukitzeko gogoia. Eta, hala, udal artxiboko arduradun Izar Salaberrik eskuratu digun 1916ko abenduaren 9ko udal korporazioaren aktan irakur daitekeenez, José Zuazola Bizkaiaiko diputatu jaunak Gernikako haritzaren zuhaixka bat bidali zion Oñatiko udal korporazioari.

Handik egun gutxira, 1917ko urtarrilaren 27an erabaki zuen udalbatzak Gernikako haritzaren zuhaixka otsailaren 2an landa-

XX. mende hasieran Andre Mariaren Batzar Eukaristikoa ospatu zen eguneko argazki honetan ikus daiteke Gernikako zuhaixka, landatu berria artean, (Udal artxiboa)



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Arma Kalea, 9 • 20560 Oñati


☎ 943 039 006 ✉ oñati@coinbroker.eus
🌐 www.gipuzkoa.coinbroker.eus

Oñati: 943 71 61 60
Donostia: 943 50 76 65

Donostian etxea nahi?

lortu ezazu zure **Think & Tak!!** .ekin Informazio gehiago: www.donosttak.com

Mendeurren ekitaldia otsailaren 3an egingo da



Zuhaitzean jarriko den plakaren testua

Udalak antolatuta, 18:30etan hasiko da Gernikako Arbolaren mendeurreneko ekitaldia. Musika bandak orduerdiko kontzertutxoa eskainiko du udaletxeko arkupetan, eta 19:00etan udal korporazioa zuhaitz ondora hurbilduko da, txistulariek lagunduta. Alkateak hitz batzuk esango ditu eta aureskua dantzatu ondoren, mendeurrena gogoratuko duen plaka bistaratuko da. Gero, Iparragirrerren *Gernikako Arbola* eta *Aloña Mendi aldamenian* abestuko dira, eta herriko neska-mutikoez 100 kandela piztuko dituzte. Bestalde, udalbatzak 'Zorionak Gernikako Arbolari' izeneko adierazpena onartu du aho batez, Gernikako haritza Euskal Herriko eskubide eta askatasunen ikurra dela gogoratzuz.

tuko zutela, meza nagusiaren ostean, pilota-jokoan gunean. Aho batez eta txaloaldi batekin hartu omen zen erabakia, orduko kronikek diotenez. Esteban Gomendio Alzaa alkateak, Leandro Ortiz de Zarate eta Benito Onraita alkateordeek, eta Marcelino Celaya, Aniceto Ugarte, Juan Leturia, Cipriano Zufria, Benigno Mili-cua, Miguel Arrazola, Tomas Arrue eta Prudencio Zulueta zinegotziek sinatu zuten egun hartako akta.

Solemnitare handiko ekitaldia izan zen. Meza nagusiaren ostean Jose Mari Gomendio eta Angel Ortiz mutikoez landatu zuten zuhaixka, eta Ladislao Sagastizabal parrokoak bedeinkatu.

Udalbatzako kideez gain, erlijio elkarteetako eta ikastetxeetako ordezkariak eta beste hainbat herritar batu ziren bertan, baita musika banda ere, eta bedeinkapenaren ondoren Jose Mari Iparragirrerren *Gernikako Arbola* abestu zuten.

ASKATASUNAREN IKUR

Hego Euskal Herrian indarrean izan ziren lege berezien multzoa dira Foruak, eta hauen sinbolo edo ikurra Gernikako arbola. Erdi Aroan eta Antzinako Erregimenean eratu ziren Foruak, eta Gernikako juntetxeko haritz zaharrena ere (*Aita Haritza*) XIV. mendekoa omen da.



Osasuntsu dago zuhaitza

lazko urriaren 15ean plazako haritzaren adar nagusietako bat apurtu eta erori zen 9 metorko alturatik, eta horren aurrean, zuhaitzaren sakoneko azterketa egitea eskatu zien udalak 'Asesores Arboristas' enpresako adituei.

Enpresak egindako txostenaren arabera, duela zortzi urte eragindako zauri baten ondorioz erori zen adarra. Zauriaren jatorria jakiterik ez dago, baina, ziurrenera, zoladuraren egindako obraren baten ondorio izan liteke.

Eroritako adarra ez ezik, gainerako adarrak ere aztertu dituzte adituek, eta, oro har, egoera onean daudela egiaztatu ahal izan dute. Kaltetuta dagoen beste adar bat ere aurkitu dute, hau ere arrazoi berberetatik, seguruenez, baina ondo sendatzen ari da. Edozein modutan, inguruko hainbat arrama moztu dituzte, pisua arindu eta altuera gutxitzeko.

Gainerakoan zuhaitzaren osasun egoera ona dela ondorioztatu dute teknikoez, eta ez dagoela adar gehiago apurtzeko arriskurik datozen urteetan, nahiz eta ezin den erabateko ziurtasuna garantizatu, tamaina eta adin honetako zuhaitzetan.



Apurtutako arramaren sekzioa aztertuta ondorioztatu dute orain dela zortzi bat urte eragindako zauri baten ondorioz erori zela.

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jalone San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



Oñatiko plaza, kafe zaharra eta Aloña zinea



Oñatiar taldea dotore jantzita



Bidaurreta



Oñatiar talde bat

XX. gizaldiaren lehen erdian Oñatin izandako gertakari nagusiak eta herriaren bilakaeraren lekuko diren argazkien erakusketa prestatu du Artixa kultur taldeak. Otsailaren 12ra arte dago ikusgai kultur etxean (egunero, 18:00-20:00)



Aloñako gurutzearen 50. urteurrena

XX. gizaldiko lehen erdiko Oñati argazkitan

Artixa kultur elkarteak antolatuta, iragan mendeko lehen erdian Oñatin izan ziren gertakari nagusiak eta herria nola aldatu den azaltzen duten argazki zaharren erakusketa dago ikusgai kultur etxean, hilaren 12ra arte.

350 bat argazki dira guztira, gaika antolatuta, 54 paneletan. Zaharrenak 1901ekoak dira, Aloñako gurutzearen inauguraziokoak, eta berriak, 1953ko munduko ziklo kros txapelketakoak. Horiez gain, Oñatira bisitan etortitako agintari eta pertsona historikoei eskainitako saila dago. Besteak beste, Francok, Primo de Riverak, Alfonso XIII. eta Victoria Eugenia errege-erreginek, eta gerora erregea izango zen Juan Carlos Borboikoak, mutikoa zela, Oñatira egindako bisitalditako lekukotzak ikus daitezke.

1918an Oñatin egin zen Eusko Ikaskuntzaren sorrerako kongresuari eskainitako argazki sorta ere badago, eta baita 1908an egin zen Donostia-Oñati nazioarteko automobil karabanaren ingurukoa ere. Erliñoak oñatiarren bizitzan

izan zuen garrantzia edo pisua erakusten duen beste sorta bat ere badago, eta hirigintza mailan Oñati nola aldatu den erakusten duten argazki asko ere bai. Txurrukaneko etxea eta arkupea eraiki aurretik Oñatiko plazak zeukan itxura erakusten duen marrazki interesgarri bat ere ikus daiteke.

1915etik 1925era arteko kinttoen argazkiak edota Oñatin zezenketak egiten zireneko argazki sortak ere badira tartean.

Azken batean, gure herria orain dela ehun bat urte nolakoa zen erakusten duen argazki bilduma interesgarria, garai bateko bizipenak eta oroitzapenak berritzen lagunduko dutenak. Ikusi beharrekoa, zalantzarik gabe.

Artixa taldeko kideek ere animatu egin nahi dituzte herritarrak erakusketa ikustera. Gainera, ikastetxeetako

DBH-4 eta Batxilergoko ikasleekin bisita bereziak egiteko asmoa dute, beraien herria nolakoa zen eta nola aldatu den ikus dezaten. Otsailaren 12rarte dago ikusgai erakusketa kultur etxean, astelehenetik igandera 18:00-20:00.



Artixa taldeko kideetako batzuk

350 bat argazki daude ikusgai, gaika antolatuta, 54 paneletan



Taberna kontzeptu berria

Oñatin



eramateko menu aditxide bat



etxean sukaldaturiko jakiak



ARDO ETA EDARIETAN ESKAINTZA ZABALA
[erreferentzia askotarako sorta handia]



40 LAGUNENTZAKO JANGELA ARGITSUA
[autoazken beharrik gabe, herrigunean kokatua]



ETXEAN SUKALDATURIKO KARTA MODERNOA
[karta guztia, etxean eramateko prestatu dezakegu]



JAKIEN ELABORAZIOA ETA SALMENTA
[taldeentzako enkarguak hartzen ditugu]

ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70 •   



Oñatin ere egiten zen txotx!

Txopekuan eta Artxubin sagardotegiak egon ziren XX. mendearen lehen erdian

Urtarrilaren 11n eman zitzaion hasiera txotx sasoiari, eta, ziur, aurten ere herritar ugari ibiliko dela sagardotegietara joan-etorrian. Gaur egun ohikoa da Astigarraga, Hernani edo Euskal Herrian dauden 87 sagardotegietako batera joatea, baina garai batean, Oñatin bertan ere egiten zen txotx. Beste era batera, noski, baina bi sagardotegi behintzat baziren XX. gizaldiaren lehen erdian: Txopekua eta Artxubi.

Inazio Bikuña eta Juliana Madina senar-emazteek jarri zuten martxan Txopekuako sagardotegia 1929an. Baseri aldamenean, ormari itsatsita iturria daukan eraikinean jarri zuten txokoa; goiko solairuan sagar-txipitzailea eta dolarea, eta beheko aldean barrikak, mostradorea eta hiru mahai ilara. Bertan dago oraindik dolarea, Oñatin egon zen lehen dolare motorduna, eta orduko sagardotegiaren arrastoak ere antzeman daitezke oraindik.

Jai egunetako meza ostean, baserriko lanak egin ondoren elkartzen ziren Txopekuan. Batez ere auzotarrak, baina Garagaltza, Triana eta beste kale-baseri batzuetako jendea ere bai. “Mahaiaren bueltan jarri eta alkartasun ederrian egoten giñan, sagardo pittin bat eta



Inazio Bikuña, ezkerretik lehena, auzotarrek Txopekuan



Uribarriko gazte taldea Txopekuako sagardotegi ondoan



Gazteak dantzan Txopekuako sagardotegi aurrean, 1946an

txorizo muturren bat hartuz” gogoratzen du Azkarragako Pedro Igartuak.

Ez zen txotx egiten gaurko erara, baina orduan ere barrikatik zuzenean hartzen zuten sagardoa; egurrezko kanilari buelta eman eta edalontzia edo pitxarra betetzen zen, azaldu digu Julio Bikuña ‘Txope’k, osaba Inaziori eta Candidori lagunduz, mutikotan sagardoa egiten ibiltzen zen garaiak oroituz.

Eguraldi ona zegoenean mahaiak kanpora ateratzen zituzten, argazkietan ikusten den moduan. Sagardotegiko ugazabari, Inaziori, soiñua jotzea gustatzen zitzaion, eta batzuetan berak girotzen zituen egonaldiak, eta beste batzuetan Banastaingo Pedro Leturiagak egiten zituen soinu-jole lanak. San Andresetan, bereziki, festa eta dantzaldi ederrak egiten zituzten Txopekuako sagardotegi aurrean, ondoko argazkian ikusten den moduan. Bolalekua ere bazegoen sagardotegiaren aldamenean, eta horrek ere jende ugari eramaten zuen Txopekura.

Etxeko sagardotegian ez ezik, Arantzazuko ostatuetara ere saltzen zuen sagardoa Inazio. “Oñatiarraneko autobusak paradia egitten eben Uribarrin,

eta hiru banastakada sagardo hartuta faten zan tio Arantzazura” gogoratzen du Juliok. “Sagarrak be saltzen zittuein. Astuan etorten ziran Oñatiko plazara. Aurrerago, automobil zahar bat erosi eben Candidok, eta harekin faten zen Oñatiko merkaura eta baitta Arrasatera be, ebaikotzetan”.

Sagasti sail zabalak zituzten Txopekuan, tiro-eremuaren azpialdeko zelaietan, eta Garay finkatik ere ekartzen zituzten sagarrak. “Korta-Gaiñeko kanterara joan-etorrixan ibiltten zan Angel ‘Segunduenaren’ kamioian igoten euen sagarrak Txopekura. Bi kamioikada behintzat bai, zakutan batuta” gogoratzen du Julio ‘Txope’k. Sagar gutxiko urteetan Astigarraga aldetik ekartzen omen zuten sagarra. 1979an utzi zioten sagardoa egiteari.

ARTXUBI SAGARDOTEGIA

Olabarrietako Artxubi baserrian ere egon zen sagardotegia. Rufino Arabaolazak jarri zuen martxan, baina gazterik hil zen eta Luis semea egin zen kargu.

Baserriaren beheko oinean zegoen sagardotegia; goiko aldean dolarea, eta behekaldean txokoa: mostradorea, zazpi bat barrika eta mahai ilara batzuk, gogoratzen du Zeriagako Joxe Marti Arabaolazak, mutikotan Artxubin sagardoa egiten eta bestelako lanetan eman zituen garaiak gogoratu.

Errepidearen bestaldera, Murguzur aldera zituen sagastiak Artxubik, sail handiak. “Gose urtiak ziran, eta jendia gabaz ibilttten zan sagarrak harrapaitten. Eta goguan dakot gabaz faten giñala, illunetan, Murguzur baserriraño, eta pare bat tiro jotzen gebela airera jendia bilddurketako” gogoratzen du Joxe Marik.

Auzotarrak eta kaleko jendea batzen zen Artxubiko sagardotegian. Batez ere Aste Santuan eta Garizuma aldian. Egun horietan ez zen musikarik egoten plazan, eta Bidaurretako elizkizunen aurretik eta ondo-



Uribarriko gazte taldea Txopekuako sagardotegiaren kanpoaldean



Patroziñotan Olabarrietan egiten zen kalejirako irudia. Eskumatik hasita: Jenaro Aizpeurrutia, Fermin Zubia, Jose Urzelai, Juan Aizpeurrutia eta ‘Goñi’ nafarra. Soinujolea andoaindarra zen.

ren kaleko jende asko joaten zen bertara, andra-gizonak umeeekin, pasioan. “Etxian hazittako bi txarri hil, eta hareikin egindako txorizobokadilluak emuten zittuein sagarduari lagunketako” dio Joxe Marik. Gainera, kanpoaldean tokea eta txantxiaren jolasak zeuden, eta hantxe egoten zen jendea, gustora.

Olabarrietako jaietan ere, Patroziño bixamon egunean batez ere, festa berezia egiten zen. Kalejira egiteko ohitura zegoen, Olabarrietako tabernatik Artxubiraino, eta buelta. Goiko argazkian ikusten den moduan, karroza bat prestatzen zuten, lorez apaindutako arku dotore batekin, eta bertan eramaten zuten soinujolea, asto

pare batek tiratuta, eta atzean azoko gazteak jera-jeraka dantzatan. Artxubiko sagardotegian ere giro aparta egoten zen egun horretan.

Sagardotegian kontsumitzen zenaz gain, Arantzazura ere saltzen zuten Artxubikoek. “Milikuanera eta Sindikara batez be, eta herritar batzuei be bai; bizikletan faten nintzan neu sagardua eruatera kalera” gogoratzen du Joxe Marik. “Sagar gutxiko urtietan Ezkio aldetik ekarten euen sagarra Txopekurako eta Artxubirako; ondo arreglaitten ziran bixak”.

1960. hamarkadan zerrategia jartzea pentsatu zuen Luisek, Okunbardiko Pedrokekin sozio, eta poliki poliki sagardotegiari utzia joan zen. ■

Olabartako Patroziño bixamon egunian kalejira egiten zan Olabartako tabernatik Artxubiko sagardotegira

XXI. INGURUMEN JARDUNALDIAK

Oñatiko Natur Eskolak antolatuta

Otsailak 15 - Martxoak 5

Biodibertsitatearen garrantzia aztergai

Lurraren historian gertatu den 6. desagertze masiboan gaude momentu hauetan, urtero ehunka espezie desagerrarazten baititu gure gizarte ereduak



Okil beltza kumeak elikatzen

Biodibertsitatea izango da aurtengo Ingurumen Jardunaldietako ardatza, izan ere aurtengo Agenda 21ak hori bera jorratzea du helburu.

Ez dela gai makala. Milioika urtetan oreka dinamiko baten garatu dira espezie bizidunak elkarrekin eta beraien inguru-nearekin harreman estuan. Kontutan izan behar da biodibertsitateak eragin zuzena duela gizakiengan, ondasun eta zerbitzu pilo bat eskaintzen baitizkigu: elikagaiak eta beste baliabide material eta energeti-

koak, medizinak, oreka klimatikoa, aisialdi guneak, balore estetikoak, etab.

Bestalde, guk ere badaukagu eraginik biodibertsitatean, lurraren historian gertatu den 6. desagertze masiboan baikaude momentu hauetan. Urtero ehunka espezie desagerrarazten ditu gure eredu sozialak. Aurretik gertatu zen 5. desagertzea dinosauroak galdu zirenekoa da, eta pentsa, gaur egun orduan baino azkarrago dabil desagertzen bizitzaren aniztasuna.

Okilei buruzko erakusketa interesgarria prestatu dute Natur Eskolako kideek. Besteak beste, Jabier Murillok egiten dituen okilen erreplikak ikusi ahal izango ditugu bertan



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

E G I T A R A U A

ERAKUSKETA (OTSAILAK 16 - MARTXOAK 5)● **'OKILAK; BASOKO AROZAK ETA BIODIBERTSITATEA'**

Kultur etxeanegunero 18:00-20:00

**HITZALDIAK** (Kultur etxean, 19:00)

- OTSAILAK 15: **'Biodibertsitatea, kopuru aniztasuna baino zerbait gehiago'**
Arturo Elozegi, biologoa, EHUko irakaslea
- OTSAILAK 21: **'Bosques viejos de Europa. ¿Existen?'**
Oscar Schwendtner, baso ingeniaria. Bioma-Forestal enpresako zuzendaria
- OTSAILAK 22: **'Okilak; basoko arotzen inguruko biodibertsitatea'**
Migel Mari Elozegi, biologoa eta basozaina
- OTSAILAK 1: **'La caza mayor: euforia poblacional y problemas de gestión'**
Mario Saenz de Buruaga, biologoa. Consultoría de Recursos Ambientales.
- OTSAILAK 3: **'Ekofeminismoa: deconstruir para construir alternativas'**
Ana M. Dominguez, Ingurumen Zientzietan lizentziatua. Kolektibo Feminista eta Ekologistetako kidea

ZINE KLUBA (Kultur etxean, 20:00)

- OTSAILAK 23: **'La tortuga roja'**. (Zuz.: Michael Dudok de Wit). Bizitzako zikloi buruzko alegatoa. Animaziozko luzemetrai onenaren 2016ko Oscar sarietarako izendatua
- MARTXOAK 2: **'Mañana'**. (Zuz.: Cyril Dion, Mélanie Laurent, Pierre Rabhi). Munduaren amaiera ekiditeko aukerari buruzko dokumentua.

**ZUHAITZ FERIXIA** (Herriko plazan, goizeko 9etatik aurrera)

- MARTXOAK 4: Mintegi ezberdinetako lore eta fruta arbolak erostekoa aukera

ZUHAITZ EGUNAK

- MARTXOAK 5: Herriko plazan, goizeko 10etan
- MARTXOAK 12: Aloñako Lagunak taldearekin elkarlanean. Unaimendin, 10:00

IRTEERA

- MARTXOAK 25-26: **Okilak ikusteko irteera** (aurrerago emango dira xehetasunak)



Gai hau ikastetxeekin eta herritarrekin lantzeko, alde batetik, okilei eta beraiekin erlazioan dauden beste izaki bizidunei buruzko erakusketak egongo da kultur etxean.

Hitzaldi eta pelikuletan landuko diren edukiak ere gai honi lotuak izango dira: biodibertsitatea izaki bizidun ezberdinen kopurua baino gehiago dela, Europa mailako baso zaharren ezaugarriak eta garrantzia, okilen inguruko kontuak, ehiza eta biodibertsitatearen arteko orekaren inguruko arazoak...

Hau guztia osatzeko, 'Mañana' dokumentalak problematika ekologiko eta sozial anitzak eta beraien alternatibak erakusten ditu. Ikus-entzunezko horrekin erlazioatutako hitzaldian, pelikulan ukitzen ez diren gaiak garatuko dira ikuspuntu ekofeminista batetik. Izan ere jendartearen oinarrian emakumeen zaintza lanak eta ekosistemen zerbitzuak dauden arren, bi elementu hauek merkatutik kanpo daudenez, ikusezin bihurtu eta ezkutatu egiten dira. Beraien gain ezartzen den botereak, beraz, beraiek esplotatzen ditu: gizonak emakumea; kulturak natura.

ESKAINZA 90€ BEREZIA
Guztia barne

EZKONTZETAN Etxe-Aundi
2016-2017 urteetan
Informazio gehiago,
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Eskozian hizkuntza gutxituen ikus-entzunezkoak aztertzen

Kontzeju | 10 | petic

Miren Manias Muñoz Oñatiko neska gazteak Eskoziako Glasgow Universityn du bulegoa; hantxe ari da lanean Kultura-Politikarako ikerketa zentroan (CCPR). Ikus-entzunezko komunikazioa lizentziatura egin, tesia landu eta doktoretza lortu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker eskoziarren artean bizi da 2016ko abuztutik. Gabonak etxean igarotzera etorri da, eta etenaldia baliatuko du etxekoekin eta lagunekin harremanak indarberritzeko. Ez da Miren geldi egotekoa, ez, eta beste beka bati esker, Europan barrena ikusiko dugu berriro hizkuntza gutxituen ikus-entzunezkoen barrukoak aztertzen. ✍️ A. Goenaga

Azken urte hauetan Eskozia hitza margotu dugu ezpainetan, maiz esango nuke. Baina, gehitxo aipatu dugun arren, ezer gutxi dakigu eskoziar herriari buruz. Zerk eraman zintuen Glasgowra?

Beka lortu izanak. Eusko Jaurlaritzak eta Glasgowko unibertsitateak hitzarmena dute sinatuta kultura-politika ikeritzeko, eta nik proiektu bat aurkeztu -saldu- nuen eta beka lortu. Ikus-entzunezko lizentziatura bukatu, tesia landu eta 2015. urtean doktoretza esku-

ratu nuen. Aztertu nuen lanaren izenburua “Euskararazko zinemaren produkzioa eta finantziarioa (2005-2012): fikziozko hamaika film luzeren azterketa ekonomiko” izan zen; hamaika film aztertu nituen euskarazko zinemagintzaren biderragarritasuna ikusteko. Hizkuntzaren normalizaziorako zinema oso tresna garrantzitsua dela uste baitut.

Zertan ari izan zara Glasgow, euskarazko zinea eta kulturari buruzko xehetasunak azaltzen

Hizkuntzen normalizaziorako zinema oso tresna garrantzitsua dela uste dut



edo bestelako lanen bat jorratu duzu azken urtean?

Ez, ez. Euskarazko zinemaren inguruko lan hark “enbaxadore” lana betetzen lagundu dit, bertako jendeak ezer gutxi ezagutzen duelako gure izaeraz. Bestelakoa izan da nire zeregina azken urtean. Eskoziako telebista hartu nuen langai nire ikerketa lanerako; BBC Scotland da bertako telebista katea, BBC ama erraldoiaren adar bat.

Gaelikoz mintzatzen al dira telebista emisioetan?

Ezkoziarren bultzadari esker, 2008. urtean BBC Scotland telebista katearen barnean BBC Alba sortu zuten. Alba hitzak gaelikoz Eskozia esan nahi du. Zortzi orduko emisioa daukate egunean 60.000 hiztunentzat bideratzen dena. Ez da gauza asko, baina apurka eta kopuru txikietan bada ere, kompetentzia gehiago lortzeko borrokan murgilduta daude. Esaterako, BBCren Karta Berria (New Charter) ari dira negoziatzen Londresko agintariekin. Eskoziak kompetentzia berriak nahi ditu, besteak beste, BBC Albaren emisio orduak handitzeko, baina ingelesak badakizu... Eskoziako Gobernu Autonomoak ez du esku-menik telebista autonomikoa sortzeko. Kontraesana badirudi ere, horrela da eta kito. Ezin da konparatu guk Euskal Herrian dugun ETBren ereduarekin. Beno, konparatu daiteke, baina ETBren kasuan ez da TVEk sortutako kanala; zentzu horretan, autonomia gehiago dugu, baina ETB beti izan da Jaurlaritzan dagoen alderdi politikoren mesedetarako tresna.

Lortuko al dute?

Egoera apur bat gaiztotu zaie Brexit-a dela tarteko. Eta, gainera, BBC, Ingalaterrako telebista kate publikoa murrizketa gogorak ari da pairatzen. Beraz, ez dakit, esperantzara kondenatuta daudela uste dut, gu bezalaxe.

Datozen hilabeteetan gai berari helduko diozu?

BBC Alba telebista katea jomugan izango dut berriro, eta zorte onena opa diet egiten ari diren esfortzuagatik, herri bezala merezi dutelako; baina, beste beka bati esker Europako hizkuntza gutxituen ikus-entzunezkoak aztertzeko bidea izango dut datozen bizpahiru urtetan. Beraz, Europan barrena mugituko naiz Eskoziatik kontinentera eta alderantziz, itzulika.

Nola moldatu zara zure eguneroko jardunean Glasgow hirian?

Lanean, buru-belarri lanean sartuta. BBC Alba gaelikoz jarduten duen telebista aztertu, gero unibertsitatean daukadan bulegoan lana orraztu, prestatu; oso gustura esan behar dut. Esperientzia aparta izan da orain artekoa.

Eta bertakoekin, eskoziarrek, zer moduz?

Ongi haiekin ere. Irekiak dira, batez ere Glasgowntarrak. Bada-kite zer edo zer Euskal Herriari buruz; eta taberna giroan gaudenean, gure herriko hizkuntzaren xehetasunak ematen dizkiet, eta gainontzeko galderei ahalik eta era onenean erantzun.

Eskoziako bazterrak apartak direla entzun dugu maiz. Harrapatu al zaitu bertako naturak?

Paisaia mirengarriak aurkitzen dituzu non-nahi, liluratuta uzteko moduko lurraldea da. Iparraldeko Highlands eremua ikusgarria da, baina, oro har, Eskozia osoak du xarma.

Toki edo txokoren bat hunkitu zaituena bereziki?

Glasgowtik gertu kokatzen den muino bat, Conic Hill (361 m) izenekoa. Tontortxoak ikuspegi zoragarria eskaintzen dizu; behe aldean Loch Lomond aintzira, ikaragarri polita eta bertan sentitu nuen isiltasunak



Ezkerrean, Glasgowko unibertsitatea. Behean, Miren Conic Hill tontorrean.



eta parajearen dotoreziak ukituta utzi ninduten.

Gurera begira jarrita, nola ikusten duzu Euskal Telebistaren egungo proiektua eta programazioa?

ETBk ibilbide luzeagoa du BBC Albak baino, gauza jakina da hori. Baina gure telebistak ez du sortzetik bere araudia aldatu. Honekin esan nahi dut hiru hamarkada bete direla Legebiltzarrean proiektua aurrera atera zenetik, eta alda-

“Kontsumo ohitura ezberdinak sustatu behar ditu ETBk, euskarazko zinema sendo bat izan nahi badugu”

keta gutxi egin dituztela harrezkero. Euskal normalkuntzarako tresna da ETB eta kontsumo ohitura ezberdinak sustatu behar ditu, gero euskarazko zinema sendo bat izatekotan. Gure telebistak beste kate batzuetatik kopiatutako errealitate gutxiago behar du, eta euskararik sortutako fikzio programa gehiago nire ustez; hortik etorriko da euskarazko zinema-erentzako behar dugun oinarri sendoa.

Eta amaitzeko, Miren, galdera xehe batzuk, gorabehera txiki-koak, hitz bitan erantzutekoak eskatuko dizkizugu, lauki batean sartuko ditugunak. Mila esker eta zorte onena opa dizuegu.

Mila esker zuei, plazer handia izan da niretzat. Ta padh leibh (eskerrik asko gaelikoz).

Motzean

G: Ba al dakite Eskozian Euskal Herri bat denik Bizkaiko Golkoan?

M: Oro har bai. Basque Country aditu eta bai, bai erantzuten dute.

G: Entzuten al da Eskoziar gaeliko hizkuntza kaleetan?

M: Ez da entzuten zoritxarrez. Ingelesa da nagusi.

G: Eskoziar idazle ezagun bat?

M: Robert Louis Stevenson, “Altxor uhartea” (Treasure Island)

G: Film aktore bat?

M: Ewan McGregor, aktore eta zine zuzendaria, ‘Trainspointing’ filmeko protagonista. Sean Connery ere bai,

jakina.

G: Eta filma, pelikula?

M: Braveheart.

G: Musikorik edo talderik?

M: Mogwai, post-rocka egiten duen taldea, Glasgow hirikoak.

G: Bertako janari bat?

M: Haggis-a Eskoziako plater nazionala.

Ardikiekin egina: bihotza, birikiak eta gibela xehe eginda tipula eta olo irinarekin nahastua. Odolkiekin ere zerbitzatzen da.

Oso gozoa.

G: Eta edarrietan?

M: Whiski oso ona daukate, baina edari bizi hori baino garagarroa nahiago.

Oñatiko Herri Curriculumuma

➤ Oñatiko kultur ondarearen transmisioa bermatzeko proiektua jarri du abian udalak, herriko ikastetxeekin elkarlanean.

Udaleko Hezkuntza sailak eta herriko ikastetxeek osatzen duten Hezkuntza Mahaian ikusi zuten orain dela urte batzuk Oñatiko Herri Curriculumuma sortzeko beharra. Jardunaldi batzuk ere antolatu ziren, curriculumuma egina duten beste herri batzuetako esperientziak ezagutzeko. Eta orain, proiektua koordinatuko duen enpresa (Euskaltzaleen Topagunea) kontratatuta, abian da Oñatiko Herri Curriculumuma sortzeko egitasmoa.

Asmoa da auzolanean egitea curriculumaren lanketa, ikastetxeak eta bestelako talde eragile nahiz herritar partikularrak prozesuan inplikatzuz.

Helburu nagusia da Oñatiko historia eta ondare aberatsa interesa duen herritar orenen

eskura jartzea.

Ikastetxeek, noski, funtsezko papera jokatu beharko dute ondarearen transmisioan, eta horretarako propio sortuko dira unitate didaktikoak. Baina transmisio lan hori ezin da ikastetxeen esku bakarrik utzi, herritarren partehartzea ere beharrezkoa da, eta horregatik ahalegin berezia egingo da Herri Curriculumumaren proiektua sozializatzeko, ahalik eta herritar gehien inplikatzeko curriculumaren lanketan eta transmisioan.

Gero eta globalizatuago dagoen gizartean, herri-kohesioa bultzatzeko beharrezkoa da herria ezagutzea, bertako historia eta kultur ondarea balioestea, eta herritarren arteko ezagutza sustatzea.

Auzolanean egin nahi da curriculumaren lanketa, ikastetxeak eta talde eragile nahiz herritar partikularrak inplikatzuz

Zergatik Herri Curriculumuma?

Ezagutzen al dugu gure herria? Ezagutzen al ditugu gure herriko monumentuak, historia, ohiturak, kultura, pertsonaiak, toponimia...?

Gaur egun, teknologia berriei esker, mundu osoko informazioa dugu eskura klik gutxi batzuk eginda. Baina, aldiz, gure herriari eta nortasunari buruzko ezagutza galtzen ari da. Gure etxeetan eman izan den ahozko transmisio naturala ahulduz joan da azken hamarkadetan, eta beraz, bestelako bitartekoak behar ditugu eten hori gerta ez dadin.

Eta hori da, hain justu, Herri Curriculumumaren helburua; hau da, belaunaldi gazteek Oñatiri buruz jakin beharko luketena zehaztu, eta ezagutza horren transmisioa egiteko materiala eta bitartekoak sortzea.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20



HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAK
PERSIANAK, LERRAK, LUR FLOZANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEÑAMIENTOS Y MONTAJES
SERRALLERAS, CERRAJES Y OTRAS CLAVES
CUARTO 12 B 4 esk. - 28003 GINCHI - GIPUZKOA
695 76 91 04 - 943 04 47 77



Udaleko Hezkuntza Mahaiko kideak, eta Oñatiko Herri Curriculmaren proiektua koordinatuko duen Itziar Garcia, Topaguneko ordezkaria

UNITATE DIDAKTIKOAK

Oñatiko historia eta ondarearen transmisioa belaunaldiz belaunaldi bermatzea da proiektu honen helburu nagusia, eta horretarako funtsezko baliabidea da hezkuntza formalak (eskolak) eskaintzen duena.

Horregatik, lehen urratsa unitate didaktikoak sortzen hastea izango da. Lehen Ziklo-

ko ikasleek (6-12 urte) Oñatiri buruz zer jakin beharko luketen zehaztuko da, eta lehenengo zikloan (1go eta 2. mailan) erabiltzeko unitate didaktikoak sortuko dira, eskola-eragileekin adostuta.

Udalak bi urterako kontratua sinatu du Euskaltzaleen Topagunearekin, eta, beraz, 2018ko urte amaierarako prest egongo

**Ikastetxeetan
6-12 adin
tarteko
haurrekin
lantzeko
unitate
didaktikoak
prestatuko
dira**

dira material didaktikoak.

HERRITARREN ATXIKIMENDUA

Esan bezala, auzolanean landu beharreko egitasmoa da. Horregatik, aurreragoko urrats batean, ahalegin berezia egingo da proiektua gizarteratu eta herritarren atxikimendua eta inplikazioa lortzeko.

joste tailerra

Jostun Chic

Goitri Etxebarria Arzuaga



- Arropen konponketak
- Erreformak
- Jantzigintza berria

➤

Motxon kalea, 3

T. 635 749 477

Adin guztietarako klaseak

Otsailaren erdialdera joango dira Karitateko ahizpak

San Martin egoitzako junta lanean ari da mojek utziko duten hutsunea ahalik eta egokien betetzeko



Egunen batean iritsi behar zuen, eta iritsi da eguna. Karitateko ahizpak hilaren 15ean joango dira San Martin egoitzatik. Horrek, noski, kezka eragin du residentziako egoiliarren eta hauen senideen artean, baina San Martin Fundazioko juntak lasaitasun mezua zabaldu nahi du. Lanean ari dira Karitateko alabek utziko duten hutsunea ahalik eta egokien betetzeko, eta zerbitzuaren kalitate mailari eusteko.

“Zaila izango da hutsunea guztiz betetzea, mojak bertan bizi izan direlako eta ordutegi barik lan egin izan dutelako” adierazi digu Mikel Biain alkatetza, San Martin Fundazioko presidentea; “baina ahalegin berezia egingo dugu hutsune hori ahalik eta egokien betetzeko, eta egoiliarrek ahalik eta gutxien igarri dezaten mojen falta”.

TRANSIZIO EGOERA

Eusko Jaurlaritzak 2008an onartu zuen Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, pertsona nagusientzako egoitza zerbitzua ematea diputazioei dagokie, eta ez udalei.

Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak KABIA izeneko erakunde autonomoa sortu zuen, herrialdeko nagusien egoitza guztien gestioa bere

gain hartzeko. Eta Kabiaren egutegiaren arabera, 2018ko lehen sei-hilabeteetan sartuko da Oñatiko residentzia Kabian.

Beraz, trantsizio egoeran geratzen da orain San Martin egoitza, harik eta Kabiak bere gain hartu arte. Momentu hori iritsi arte, Oñatiko udalak jarraituko du San Martin egoitza kudeatzen (San Martin Fundazioaren bitartez) orain arte bezala.

Eta arlo asistentzian hainbat neurri hartuko ditu San Martin Fundazioak, Karitateko ahizpen hutsunea betetzeko asmoz. Alde batetik, tarea edo eginkizunen ikuskatzailearen figura egongo da, eta lantalde multidiziplinar bat (medikua, psikologoa, gizarte laguntzailea, fisioterapeuta...) sortuko da, egoitzako lanak antolatu eta eguneroko lanean sor daitezkeen hutsuneak edo errefortzu premiak detektatzeko. Baina, beti ere, Kabia ereduak markatzen dituen ratioak eta zerbitzuen katalogoa kontuan hartuz. Foru Aldundiak San Martin egoitzan egin zuen auditoriaren arabera, arazo barik beteko du Kabia eredu, ez dagoelako diferentzia handirik gaur egungo aplikatzen den gestio ereduarekin.

“Karitateko ahizpen laguntza izan dugu orain arte, eta igarri

Apirilaren 2an egingo zaie omenaldia

San Martin egoitza utziko zutela jakin bezain pronto, udalak esker ona adierazi zion, idatziz, Karitateko Alaben elkarteari, eta lerro hauen bidez berretsi egin nahi ditu esker oneko hitzak, hainbeste urtetan egin duten lanagatik oñatiarren zerbitzura.

OMENALDI HERRIKOIA

Herritar talde batek antolatuta, Karitateko alabei egingo zaie omenaldi ekitaldia apirilaren 2an izango da Mikel Goiaingeruaren parrokan. Omenaldi ahalik eta herrikoiena egitea da asmoa. Egun horretarako liburu bat ere prest egongo da, Karitateko ahizpek Oñatin egindako ibilbidea eta lana jasoko duena.

Mojen hutsunea igarriko da, baina San Martin egoitzan lantalde sendoa dagoela erakusteko unea da

egingo da beraien falta. Baina mojek transmititu dizkiguten baloreak (adiskidetasuna, baikortasuna, konfiantza, profesionaltasuna...) geure eginez, San Martin egoitzan lantalde sendo bat daukagula erakusteko unea da” azaldu digute juntako kideek.

Egoiliarren senideekin ere interlokuzio sistematizatua ezartzeko asmoa ere badu San Martingo juntak, eguneroko funtzionamenduan ikusten dituzten arazoak edo gabeziak jakinarazteko.

Ororen gainetik, lasaitasun mezua transmititu nahi du San Martingo juntak, behar diren neurriak hartuko direlako, egoiliarren ongizatea bermatzeko.

'ZURE EROSKETA ETXEAN'

Banaketa zerbitzu berria Oñatin

Negozio berriak sustatzeko helburuarekin, esperientzia pilotua jarriko da martxan Oñatin otsailaren 6tik aurrera. Etxez etxeko banaketa zerbitzua izango da. Herriko zenbait denda eta komertzioan erosiz gero, herritarrek aukera izango dute euren erosketa etxean jasotzeko, era ekologiko eta erosoan.

EderMobilityServices enpresak jarriko du abian egitasmoa, eta *SD Logística* arduratuko da banaketaz. Auto elektrikoarekin egingo da banaketa eta herriko komertzio eta denda ugarik egin dute bat egitasmoarekin. Hiru hilabetez, denda horietan erosketak egiten dituzten herritarrek (herrigunekoek zein baserri auzoetakoek), euren etxeetan erosketak jasotzeko aukera izango dute. 'Zure erosketa etxean' da zerbitzuaren izena eta, asmoa da, hiru hilabetez Oñatin gauzatzea, eta negozio eredu bideragarria den frogatzea.

Zure erosketa etxean

Zerbitzuaren erabiltzaileek egitasmoarekin bat egin duten komertzio eta dendetan pegatinak ikusiko dituzte, 'Zure erosketa etxean' leloarekin. Hala, komertzioan zerbitzua eskatu, bizilekuaren datuak eman eta modu erosoan jasoko

Banaketa zerbitzua auto elektrikoarekin eskainiko da



dituzte erosketak etxean. Zerbitzuak astelehenetik ostiralera bitartean goizez (11:00-14:30) eta arratsaldez (17:00-20:00) funtzionatuko du. Baita zapatueta ere, goizez.

Proiektu berritzaile eta garbia

Gainera, zerbitzua ez da mugatuko erdigunera. Baserrietan bizi diren herritarrek eta erdigunetik urruti dauden auzoetako bizilagunek ere erabili ahal izango dute. Proiektu berritzaile izango da oso, izan ere banaketa zerbitzua auto elektrikoarekin eskainiko da. Eroso, ekologiko eta merke, herritarrek aukera izango dute datozen hiru hilabeteetan erosketak etxean jasotzeko. Esperientzia pilotuak arrakasta izanez gero, negozio berria jarriko da Oñatin, eta baliteke eskualdera ere hedatzea, enpresa berri bat sustatuz.

OÑATIKO
aukerarik zabalena

ZATOZ INFORMATZERA!!

Arantzazuko Arna
Adosatuak Kurtzekua
San Martin
Kurtzekua

italde www.italde.com Ramon Irizar kalea
T. 943 78 27 07



Harrobiaren ustiapena baimentzen da bakarrik eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne

Gomiztegiko harrobia gaur egun

Hiri Antolaketako Arauak aldatu ditu udalak harrobiaren handitzea galarazteko

Kontzeju | 16 | petic

Oñatiko Hiri Antolaketako Arauetako hiru artikulua aldatzea onartu du udalbatzak aho batez, Gomiztegi-Arantzazuko harrobia handitzeko proiektua galarazteko helburuarekin. Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko eratu den Aholku Kontseiluak ere oniritzia eman dio aldaketa horiek egiteari.

Oñatin indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauak 2006an onartu ziren. Baina, gerora, ingurumenarekin zerikusia duten udalez gaindiko hainbat arau eta dekretu onartu dira, hala nola: Aizkorri-Aratz natur parkearen izendapena, bertako natur baliabideak antolatzeko plana, edo kontserbazio bereziko eremu izendapena, besteak beste.

Horren aurrean, eta ikusita Gomiztegiko harrobia handitzeko eskaera martxan dagoela, udalak *Ekoingenia* enpresari enkargatu zion gune horretan dauden balio naturalistikoaren azterketa egitea, bereziki, Kontserbazio Bereziko Gune bezala kalifikatutako eremuan.

Enpresak aurkeztutako txostenean arrazoitzen da, fauna, flora eta habitat ezaugarriengatik babestu beharreko gunea dela.

Erauzketa jarduera mugatu

Beraz, kontuan hartuz 2006an onartutako Arauetan erauzketa jarduera (harrobia) baimentzen dela Arantzazu-Gomiztegi inguruan, udalak beharrezkoa ikusi du Oñatiko arauetako hiru artikulua aldatzea, kontrajarriak direlako interes naturalistikoaren (flora, fauna, habitat naturala...) babesarekin.

Horretarako, Hiri Antolaketako Arauen 11, 65 eta 74 artikulua aldatzea onartu du udalbatzak, eta, horrenbestez, erauzketa jarduera mugatu egiten da Babes Bereziko eta Nekazaritza eta Abeltzantza eremu bezala kalifikatutako gunean.

Arantzazu-Gomiztegiko harrobiaren ustiapena baimentzen da bakarrik eta eskusiboki gaur egungo lurralde mugen barne.



Gomiztegiko harrobiaren azalera bikoizteko eskaera egina du Aridos Aloñak

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Emakumeentzako Jabetze Eskola martxan da



Herriko emakumeen topagune eta gogoetarako nahiz prestakuntzarako Foroa izan nahi du

Urtarrilaren 11n jarri zen martxan Emakumeen Jabetze Eskolaren ikasturte berria, 'Asertibitatea eta gatazka konponketa' tailerrarekin. Hemendik aurrera, beste bost tailer eta hitzaldi bat egongo dira apirila bitartean.

Elkarrengandik ikasteko foroa izan nahi du Jabetze Eskolak; emakume anitzen arteko harremanak sortu eta indartzeko gunea izateaz gain, emakumeen ekarpenak jaso, baloratu eta pertsonalki zein talde bezela indartzeko espazioa. Sexismoak gure bizitzetan duen eragina ezagutu eta gainditzeko gunea sortzea da helburua.

Beraz, udaleko Berdintasun sailak animatu egiten ditu herriko emakumeak jarduera ezberdinetan parte hartzera. Tailerretan parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea udaletxeko harreran edo udalaren webgunean (www.oñati.eus) tailerra hasi baino zortzi egun lehenago, gutxienez.

PROIEKTUA DEFINITU

Orain arte Andraitz Talde Feministak antolatu eta kudeatu du Jabetze Eskola, baina aurrerantzean udaleko Berdintasun sailak zuzenduko du, Andraitzek hala eskatuta. Leire Zumalde udaleko Berdintasun saileko buruak adierazi du gogo onez hartzen dutela emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa garatzeko aukera ematen duen foro honi jarraipena emateko ardura. Era berean, Zumaldek aurreratu du hausnarketa prozesua jarriko dutela martxan 2017an zehar, Jabetze Eskolaren proiektua definitzeko.



1. **TAILERRA: ASERTIBITATEA ETA GATAZKA KONPONKETA** (urtarrilak 11-martxoak 15)
2. **JENDAURREAN HITZ EGITEKO TAILERRA** (urtarrilak 27 - martxoak 24, ostiralak). Gazteleraz
3. **DJ TAILERRA** (otsailak 4). Euskaraz.
4. **AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA** (otsailak 11, larunbata). Euskaraz.
5. **ESKALADA TAILERRA** (otsailak 25 - apirilak 1, larunbatak). Euskaraz.
6. **EKONOMIA FEMINISTA** (martxoak 21 - apirilak 4, astearteak). Euskaraz.
7. **HITZALDIA: NIK ERE BADITUT IKASKETAK. NOLA HOMOLOGATU?** (apirilak 5). Gazteleraz.




OHARRA: Oraindik plaza libreak daude 'Autodefensa feminista' eta 'Ekonomia feminista' tailerretan. ANIMATU!



ETXALUZE BERRIA

Etxaluzeko parkea berritzeko proiektua onartu du udalak. Udaberri aldera hasiko dira lanak.



280 mila euroko aurrekontuarekin, udalak aurrean egongo duen inbertsiorik inportanteenetakoa izango da Etxaluzeko parkearen eraberritzea.

Irudiak erakusten duen moduan, parkearen eremu zabala banatu egongo da borobil formako eremu txikiago eta batuagoetan. Modu horretan indartu egin nahi da parkeak elkargunerako duen erabilera. Baina, gainera, gaur egun balduta daukan pasealeku funtzioa ere berreskuratu egongo du Etxaluzeko parkeak, Aita Lizarralde kaletik emango zaion sarrera berriari esker.

Gaur egun parkean dauden belar-guneak eta zuhaitzak mantendu egongo dira (bizilagunek zaintzen dituzten lorategiei dagokien garrantzia emenez), eta zuhaitz berriak landatuko dira, lurrazpiko aparkalekuen mugak aintzat hartuz, beti ere.

Parkea berritzeko erabiliko den materialen hautaketa ere modu berezian zainduko da, asfaltozko ibilbideak, egurrezko eserlekuak eta zoru-guneak, eta belarra konbinatuz.

Azken batean, elkargune edo topaleku lasai eta eroso bat sortzea da helburua, belaunaldi ezberdinetako herritarren arteko harremana sustatzeko amsoz; haurrak, helduak eta adineko pertsonak eroso egongo diren gune bat.

Ainhoa Negueruela, Lierni Altube eta Naiara Otaegi arkitektoek idatzi dute Etxaluzeko parkea berritzeko proiektua. "Hirigintza ikuspegi batetik proiektu berritzailea eta freskoa" dela adierazi du udaleko Hirigintza batzordeko buru Irati Etxeberriak, "sentsibilitate bereziz landutakoa".

Lanak uda parterako hasia da udalaren asmoa.

IRAGAZKAITZE LANAK

Etxaluzeko parkea berritzearekin batera, azpian dauden aparkalekuen eremua inpermeabilizatu edo iragazkaitzeko lanak ere egongo dira, bertako jabekideek eta udal ordezkariak adostutako moduan.

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

San Lorentzoko bidegorria eraikitzeko lanak lizitaziora

Ugarkalde eta San Lorenzo arteko bidegorria eraikitzeko lanak lizitaziora atera ditu udalak. Gaur egun Olapoton eta Lazarraga kalean (Maiztegiko etxeen parean) amaitzen diren bidegorriak elkarrekin lotzea da helburua, bidegorri sarea osatuz eta mugikortasun jasangarria sustatzeko asmoz.

400 metroko luzeera izango du bidegorri zati berriak, eta GI-2630 errepidearen iparraldean (San Lorenzo aldean) egokituko da. San Lorentzoko 1 eta 2 zenbakidun etxe-blokeen parean bidegorriak aparkalekuen eremua hartuko du, eta bertan galtzen diren aparkalekuak errepidearen beste aldean egokituko dira.


Farmazia pareko zebra-bidetik aurrera bidegorria espaloitik joango da. Autobus geltokia eta bidegorriaren artean segurtasun tarte bat uzteko, espaloia zabaldu egingo da errepide aldera, GI-2630 galtzadaren zabalera pittin bat estutuz.

Espaloia egoera onean dagoen guneetan seinalizazio horizontal eta bertikalez egokituko da bidegorria. Eta espaloia egoera txarrean dagoen guneetan (Olapoto aldean), bidegorria ezartzeaz gain inguruko zoladura ere berritu egingo da.

Proiektuak 199.315 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du eta bost hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Udaberrirako hasiko dira lanak



Gaur egun Olapoton eta Lazarraga kalean amaitzen diren bidegorriak elkarrekin lotuko ditu



Udaberrirako hasiko dira lanak eta bost hilabeteko epean amaituko

San Lorentzoko urbanizazioa berritzeko lanak lizitaziora

San Lorentzoko 10, 14, 20, 21, 22, 23 eta 24 zenbakietako etxe blokeen inguruko urbanizazioa berritzeko lanak lizitaziora ateratzea erabaki zuen udalbatzak urtarrileko osoko bilkuran. Auzoko beste hainbat gunetan egin den moduan, oinezkoen ibilbideak (espaloiak eta eskailerak) eta zebra-bideak egokituko dira, irisgarritasun arauetara egokitzeko, ahal den neurrian.

Udaberrian hasiko dira lanak eta bost hilabeteko epean amaituko

Egingo diren eskuhartze nagusiak hauek dira: espaloiak zabaldu, maldak gutxitu, zoladura berritu (orientazioa errazteko zoladura mota ezberdina erabiliz), eskailera mailen neurria

egokitu eta eskudelak ipini. Gainera, plataforma moduko zebra-bideak egokituko dira 14, 20 eta 21 zenbakien ondoan, eta oztopo-zutoinak ezarriko dira zenbait gunetan, ibilgailuen aparkaleku desegokiak ekiditeko.

Bestalde, urbanizazioa berritzeko lan hauek baliatuz, saneamendu sarea berritzeko lanak ere egingo dira, euri urak eta ur zikinak bereiztuz.

Proiektuak 198.966 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du eta bost hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Udalaren asmoa da martxoan edo apirilean hastea lanak.



10, 14, 20, 21, 22, 23 eta 24 zenbakien inguruko urbanizazioa berrituko da fase honetan



Oinezkoen ibilbideak irisgarritasun arauetara egokituko dituzte



Herribusa San Martinera ere iritsiko da

'A' lineako autobusa txandaka igoko da Elkar Hezira eta San Martin auzora

Eguna zehaztu gabe dago oraindik, baina otsailean zehar Herribusa San Martin auzora ere igotzen hasiko da. Herribusak dituen bi lineatako bat bakarrik ('A' linea), Bidebarrieta kaletik Ugarkalderuntz doana, igoko da San Martinera. Gainera, ibilbidea gehiegi ez luzatzeko eta gaur egungo ordutegia errespetatzeko, 'A' lineako autobusa txandaka igoko da Elkar Hezira eta San Martinera; hau da, bidaia batean Elkar Hezi-Eroskiko geltokira iritsiko da, eta hurrengoan San Martinera.

'B' lineako zerbitzua, Ugarkaldetik Bidebarrieta aldera doana, ez da San Martin auzora igoko; horretarako, norabide aldaketak egin beharko lituzke Portalekuako eta Bidaurretako biribilguneetan, eta horrek atzerapen handiegia eragino luke zerbitzuan.

BALORAZIO POSITIBOA

Urtarrilaren 14an bete ziren Herribusaren erabilera neurtzeko udalak jarritako hiru hilabeteko probaldia, eta balorazioa positiboa da.

Urritik urtarrilera bitartean 6.100 bidaiari izan ditu Herribusak, eta udal gobernu taldeak positiboki baloratu ditu datuak.

"Hiletik hiler a gora egin du erabiltzaile kopuruak; urrian 616 izan ziren, eta azaroan eta abenduan 2.000tik gora" azaldu digu Irati Etxeberririk, udaleko Hirigintza eta Zerbitzuetako buruak. "Herritarren artean gero eta ohikoagoa da Herribusa erabiltzea, gure errutinen artean barneratuz doa, eta, beraz, balorazioa positiboa da".

Horrenbestez, Herribus zerbitzuari jarraipena ematea erabaki du udalak, epe ertain-luzerako apustua eginez. Oraingoz, iazko urrian Leintz Garraioak enpresarekin

Hiru hilabeteko probaldian 6.100 bidaiari izan ditu Herribusak. Udalak zerbitzua mantendu eta epe ertain-luzerako apustua egitea erabaki du

sinatu zuen akordioa luzatzea erabaki du hiruzpalau hilabetez. Bienbitartean, baldintza-plegia prestatuko du, Herribus zerbitzuaren lizitazioa egiteko hainbat urterako. Horretarako, udalak 150.000 euroko diru-atala bereiztu du 2017ko aurrekontuetan.

Udalaren asmoa da, gainera, Herribusarekin batera Oñati eta Arantzazu arteko igande eta jai egunetako autobus zerbitzua lote berean konkurtsora ateratzea.

Partehartze prozesu baten ondoren, udalak 2014an diseinatu zuen Mugikortasun Jasangarrirako Planean jasotako neurrietako bat da Herribusa, eta badirudi geure artean gelditzeko sortu dela.

Zamaketa lanetarako txartelak eskuragai

Oinezkoen Kaleetako (Kale, Barria, Atzeko Kale eta Kale Zaharra) bizilagunen zamalantetarako txartelak eskuragarri daude udaletxeko sarreran. Onartu ez diren kasuetan, hila-ren 28ra arteko epea izango dute autoaren helbidea aldatu eta eskaera berriro egiteko.

Familia ugarietarako hobariak Ibilgailuen gaineko zergan

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zergan hobaria edo bonifikazioa aplikatuko die udalak aurren, lehen aldiz, familia ugarietarako. Bost plaza edo gehiago dituzten ibilgailuen alde aplikatuko da hobaria, eta familia bakoitzeko ibilgailu batek bakarrik jaso ahal izango du bonifikazioa. Hobariaren portzentaia %15 eta %90 artekoa izango da, diru-sarrera gordinen eta seme-alaba kopuruaren arabera. Hobaria eskatu nahi dutenek otsailaren 15a baino lehen egin behar dute eskaera udaletxean, ibilgailuaren matrikula adieraziz.

Kiroldegiko garbiketa zerbitzua lizitaziora

Kiroldegiko garbiketa zerbitzua lizitaziora ateratu du udalak. Bi urterako kontratua egingo da, beste bi urtez luzatu ahal izango dena, gehienez. Kontratuaren prezioa (4 urtekoa) 521.400€ (BEZ kanpo) da, eta urtebetekoa 130.350€ (BEZ kanpo). Urtean egin beharreko lanordu kopurua 7.000, eta orduko prezioa 18,62€ (BEZ kanpo). Proposamen ekonomikoa, memoria teknikoa (koordinazioa, metodologia, kalitatea...) baloratuko dira, besteak beste.

Gazteen aisiarako lokalak legeztatzeko dirulaguntza deialdia egin du udalak

Lokalen legeztatze prozesuan egin beharreko bi gastu mota arintzeko eskatu ahal izango dira laguntzak. Alde batetik, lokalen jardueraren komunikazioarekin batera udaletxean aurkeztu beharreko txosten teknikoa idazteko, 800 euroko mugarekin. Udalaren dirulaguntza eskuratzen duten lokalen jabeek bi urtez mantendu beharko dute lokal horren jarduera gazte lokal gisa. Bestalde, erantzukizun zibileko aseguroa egiteko ere eskatu ahal izango da laguntza, 300 euroko mugarekin. Lokalen jabeek edota erabiltzaileek eskatu ahal izango dute laguntza hau. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren urte amaiera bitartean eskatu ahal izango dira dirulaguntzat.

Kultura arloko dirulaguntza deialdia

Kultura arloan diharduten herriko talde eta eragileen programak eta sormen lanak diruz laguntzeko deialdia egin du udalak. Bi atal bereizten dira. Alde batetik, 58.000 euroko diru atala dago, kultur taldeen proiektuak eta programak diruz laguntzeko. Bestetik, 12.000 euro bideratuko dira, irabazi asmorik gabeko taldeek urtean zehar garatuko dituzte sormen lanei diruz laguntzeko. Eskerak egiteko hilabeteko epea egongo da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik aurrera.



Haur txikiak igeriketan murgiltzeko ikastaroa

0-24 hilabeteko haur jaioberrien gurasoei zuzendutako ikastaroa antolatu du Zubikoa kiroldegiak. Haur txikiak igeriketan murgiltzeko baliabideak landuko dira bertan. Hautxoaren prozesu psikomotorra nolakoa den azaldu, eta aurreneko bi urteetan zehar horri etekina atera ahal izateko teknikak erakutsiko dira, ariketa progresiboak eginez. Trebetasun horiek landuz, erosoago eta seguruago sentitzea da helburua.

Martxoaren 4an izango da ikastaroa, 15:30etatik 19:00etara, kiroldegiko igerilekuan. Prezioa: 8€ abonatuak eta 12€ ez-abonatuak. Otsailaren 21a baino lehen eman behar da izena. Plaza mugatuak izango dira (15 gehienez). Informazio gehiago: zubikoa@onati.eus / 943716375 (Oskar)

25€ (8.5.2. barna)
Haurren menua: 9,5€

Eguneko menua 11€
60 laguntzako jangela

OHARRA:
Arken egunetan herrian zabalduko albiste faltsua ezertatu nahi dugu. **Jatetxea ez da itxiko.** Ilusior eta gogoz jantzen dugu bezeroei zerbitzu onena eman nahian.

Ongi etorri hafa mizka

- Ezkiradun entralada epela
- "Beqi haundi" arroz beltza
- Onllo eta arraitzadun kabia
- Itsaki krema txangurro pikatosteekin
- Barazki parrilada ketutako gatzarekin

Dilista eta sagardun krema urdaitzapiko kurrushariekkin

- Entrekota rokefort saltzarekin
- Txerri azpizuna foie eta pasazko aranez betea
- Ahate konfita oportu erara
- Legatza plantan beliko olio errearekin
- Bakailaoa aporrieroa

Aikenburukoak

- Ebieko tartak
- Yogurtetzko mousa mango kouliskarekin

(etxeko kriantza)

iturritxo
J A T E T X E A

ATZEKO KALE, 32 BEHEA • T. 943 71 60 78

OÑATITIK ELKARTASUNA ALTSASUKO HERRIARI



Oñatiko Fan Hemendik taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu otsailaren 11rako, Altsasuko herriari elkartasuna adierazteko asmoz. “Dagoeneko hiru hilabete igaro dira Altsasuk pairatu behar izan duen muntai poliziala martxan jarri zenetik. Orduetik, ondorio latzak jasan behar izan dituzte bertako herritarrek: hiru gazte atxilotuta, beste batzuk inputatuta eta herriaren irudia erabat kaltetuta” adierazi dute antolatzaileek. Horren harira, espetxean jarraitzen duten hiru gazteei, senide eta lagunei, eta Altsasuko herriari elkartasuna helarazteko asmoz, honako ekitaldiak antolatu dituzte:

EGITARAUA

OTSAILAK 11, LARUNBATA

9:00 Oñatiko tontorretara elkartasun martxa. Herriko plazatik abiatuta.

OTSAILAK 18, LARUNBATA

11:30 Hitzaldia. Altsasukoen testigantzak.

Kultur etxean

19:30 Kontzertua. Arrasateko **Dirty Brothers** punk-rock taldea (‘Mondra Calling’ disko berria aurkeztuko dute) eta Beasaingo **The Sinners** streetpunk taldea. Gaztetxean.

ARRI

Industria Hornidurak
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

Orain Oñatiarron
zerbitzura!

‘Kilometroak Txikia’ otsailaren 12an

Irailaren 24an Oñatin ospatuko den Kilometroak festarako zirkuitua prestatzen hasita daude Txantxiku ikastolakoak, eta egun horretarako aurreikusten den ibilaldiaren zati bat egingo dute otsailaren 12an, Korrika Txikia ekimenaren bidez.

Izenak dioen moduan, ume eta gaztetxoak izango dira egun horretako protagonistak. Goizeko 11etan hasiko da ekitaldia ikastolako patioan. Gero, ibilbidea egingo dute (Bidebarrieta-Santa Lutzia-San Martin-Kale Barria-Foruen plaza), eta 12:30etatik aurrera umeendako jolasak egingo dira plazan.



Dantzariak eta erraldoi eta txorimaloek girotuko dute ibilaldia, eta Txantxiku ikastolak ‘Lekaixoka!’ zapiak janztera animatu nahi ditu pertsonei hartzaileak.

Horretarako, otsailaren 6, 8 eta 10ean zapiak salgai jarriko dira ikastolako patioan (16:30), eta otsailaren 12an ere egingo da erosteko aukera.

Oñatiko TRAUTI elkarteko kideek ere parte hartuko dute otsailaren 12ko Korrika Txikian. Beraien iritzia ezagutu nahi dute antolatzaileek, irailaren 24ko Kilometroak egunerako ibilbidea eroso, atsegina eta irisgarri nahi dutelako.

INAUTERIETAN ERE, LEKAIXOKA!

Otsailaren 25ean ospatuko den Oñatiko Inauteri festan ere izango du presentzia Kilometroak-ek. Goizean zehar Gi-Okelako pintxoak eta salda banatuko dituzte Portu plazan, eta arratsalde partean saiheski pintxoak herriko plazan. Zozketa bat ere antolatuko dute; asto bat egingo da plazan, eta bere pisua asmatu beharko da (astoa ikutu barik). Asmatzaileak saria jasoko du.

Pake Lekuko ekitaldiak otsailean

● OTSAILAK 4. Santa Ageda kantak, kalez kale, jubilatuen Aloña Abesbatzaren eskutik.

● OTSAILAK 12 Antzerki solidarioa. Ikusi-Makusi taldeak ‘Sala de espera’ eta ‘Carta a Ramón’ lanak eskainiko ditu Santa Ana aretoan, 19:00. Sarrera: 5€.

● OTSAILAK 14

Hitzaldia: ‘Elkartasuna-Solidaridad’. Hizlaria: Joxean Larrañaga, parrokoa. Pake Lekun, 17:30.

● OTSAILAK 23 Ostegun Gizen ospakizuna, Pake Lekun, 18:30 Prezioa: 1€.

● OTSAILAK 28. Tolosako inauterietara txangoa egun pasa.



- Arazerixan -



Gaztelekuan urte berriak ekarritako aldaketak

Gaztelekuaren bueltan zabiltzaten guztiok jakin-go duzuen bezala, urtarrilean hainbat egunetan Gaztelekua itxi behar izan dugu. Lehenik eta behin, sortu ahal izan dugun kalte edo gaizki egonagatik sentitzen dugula adieraztea, are gehiago epe honetan suertatu den eguraldi txarra ikusita. Administrazioaren munduan askotan ezin izaten da gauzak nahi denean burutu, palazioko gauzak poliki, eta abuzturako programatuta zegoena orain burutu behar izan da.

Behin hori azalduta, Gazteleku barruan dagoeneko topatu ahalko dituzuen aldaketa eta hobekuntzak azaltzen ahaleginduko naiz. Horiek, eta epe motzean burutuko ditugun beste batzuk, nahiz eta dagoeneko ez da itxi beharrik egongo.

Inbertsiorik handiena eszenatokiko ekipamenduan egin da. Honetan, segurtasunari begira aldaketak egin dira, fokuen sistema osoa sabaitik jaitea bideratuko duten polipasto batzuk instalatu dira, eta dagoeneko argi teknikariak segurtasun osoz aritu ahalko dira. Hala ere, kontzertuen publikoari begira, instalatu den Led argiteri berrian sumatuko dira aldaketa nabarmenak, eta ziur nago aldaketa hau musikazaleen artean oso komentatua izango dela.

Bestalde, Topaleku, Kubo, zein bertako biltegiei berregituraketa bat eman nahi izan diogu, espazioa ikuspegi hezitzaile batekin begiratzuz. Biltegiatoko materiala, gazteen eskuragarri utzi dugu, eta bertako espazioak jolas eta esperimenduzko txoko desberdinetan banatu ditugu. Aurrez genituen material eta espazioez gain, gure asmoa, txoko berri batzuk sortzea da, esaterako, bi biltegi erabilera anitzeko gune bezala erreserbatuz, edota sukalde batekin ekipatuz. Modu honetara, sormena eta ekintzailetasuna sustatzea ditugu helburu.

Aipatutako guztiez gain, sotoan ere aldaketak sumatuko dituzue. Aurreko urtean egindako azterketa baten ondorioak gauzaten ari gara gune honetan. Batez ere, haurrak eta guraso edo zaintzaileen arteko interakzioa eta jolasa bultzatzeko helburuarekin. Hau, gure ustez, oso inportantea delako, eta sotoak aukera paregabea ematen duelako horretarako. Margotu berri topatuko duzue, umeen gunetara sartzeko hesiak kendu ditugu, laster irakurketa txoko bat ere topatuko duzue, jolas berriak ere ekarriko ditugu, ... beraz, gurasook animatu zuen txikiekin jolasean sotoa disfrutatzeraz!!

Bukatzeke guztiok animatu nahi zaituztet Gaztelekua erabiltzen jarraitzera, eta berrikuntza hauek gozatzera, ongi etorriak zarete!!

Ion Lopez Santamaria
Haur eta Gazteria Teknikaria/
Gaztelekuko arduraduna

OTSAILEAN...

KUBOAN: [18] 5. mailako neska mutikoentzat pelikula emanaldia (17:00). **GAZTELEKUAN: [12]** Bertso papel lehiaketa sari banaketa (17:00). Ondoren Kafkaren aulkia bertso ikuskizuna. Sarrera doan. **[25]** Iñauterietako Kontzertua (22:00): Willis drummond + skakeitan + herstura. Aurre salmenta Xagu, Ona eta Boga tabernan 8€. **OLAKUAKO DORREAN [11]** Ludoteka ibiltaria: pizza tailerra eta jolas erraldoiak (10:30-13:30).

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza eta Udal Euskaltea

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Amaia Arzamendi

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Oñatiko Herrixari eskerrik asko BIHOTZETIK

Vicente Elguero

Milla Esker bizitzari berriro Mheusten lagundu didazuen guztioi.

Abenduaren 18xan San Migel Goiaingeruaren parrokixan, betiko lez, gabonetako kontzertu berezia gozatsen ari nintzela, bihotzekua jasan nuen.

Momentu hartan, era batera edo bestera lagundu zenidaten guztioi, bihotz bihotzez **ESKERRIK ASKO**. Batzuek era ixillean, beste batzuek era aktiboan, baiña guztia era koordinatuan egiñez. Izugarritzko suertia izan nuen, egoera larri horri fronte egiten jakin zuten aditu asko nere inguruan elkartu zirelako. Batzuk “Desfibriladorearekin”, beste batzuk geldirik zegoen bihotzari hauspoa eman eta ni bizirik mantendu guran.

Guztion partehartzea benetan azkarra eta jakinduriar betetakoa izan zen; ezin aipatu gabe utzi Larrialdietako Osakidetzako adituen lana eta Gasteizko Txagorritxu hospitalean jasandako berehalako atentzioa, bai momento berean baita ondorengo ordu eta egun kritikoetan.

Faktore guzti horiei esker, osasunez

ondo aurkitzen naiz. Ondorio larri barik eta 2016ko Abenduaren 18xan nere bigarren jaiotza eguntzat hartu dut dagoeneko.

Horrelako kasuak haintzat hartu eta aurrerantzean ahal den neurrian ekiditzeko asmoz, desfibriladore gehiagoren beharra eta beraien kudeaketa egokia proposatu nai diet herriko mandatariei.

Eskerrik Asko guzti guztioi eta **URTE BERRI ON**.

25 urte

Xabier Igartua

Zer izango zen urte bat udarik eta Znegurik gabe? Zer hilabete bat ilgora eta ilbeherarik gabe? Eta egun bat goizik eta arratsalderik gabe? Non geunden duela 25 urte? Pentsatu dugu sekula zenbat denbora egin dugun harrezkero berbetan, esaterako, edo goxo, negarrez, barrezka, amorratuta, hunkituta, haserre edo pozik?

100 urtaro, 25 urte. 300 hilabete, 25 urte. 9125 egun, 25 urte. Ez al dira 25 urte gehitxo, are mendekuan sinesten dutenentzat ere?

Martxoan 25 urte beteko ditu Joseba Arregik atxilotu zutenetik espetxean, 71 urte beteko dituen hile berean.

Berandu baino lehen etxera ekarri behar dugu Joseba.

Atsedenen apologia

Lourdes Idioiaga eta Jon Kepa Gerrikagoitia (EAJko zinegoitziak)

Apología del descanso’ izeneko Artikulua argitaratu dute Manuel Lezertua Arartekoak eta Javier Enériz Nafarroako Herri Defensoareak (Noticias de Gipuzkoa, 2016-10-08). Artikulu horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) iritzia jaso da esatean “...kutsadura akustikoak pertsonen osasuna eta osorik izatearen oinarrizko eskubidea urratzen du”. Idatziak argi uzten du Giza Eskubideen Hitzarmenak “agintariei eskatzen diela pertsonen atsedene-eskubidea bermatu dezatela gauetako zalapartek sortutako zaraten aurkako neurri eraginkorrak hartuta; halaber, salatzen du udal-agintariak geldotasunez jokatu dutela zarata akustikoen aurrean.

Gainera, udal-agintarien eginkizuna da zarata sortzen duten jarduerak kontrolpean edukitzea, neurtze-tresneria erostea, herritarren kexei erantzun azkar eta eraginkorra eskaintzea; eta ofiziozko prozedura hastea. Idatzian, ez da eztabaidan jartzen aisialdi-jardueren interesa eta onura, baina eskatzen du jasagarriak izan daitezela.

Ildo horretatik, EAJ-PNVren udal-



- Pentsuak
- Lan tresnak
- Haziak
- Landareak
- Lan erropak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
eta beste hainbat gauza...

943 905 740 - 663 384 052

gobernuak 2008 indarrean zegoen ordenantza aldatzea onartu zuen, herritar eta ostalariekin antolatutako parte-hartzearekin. Ordenantza-aldaketa horrek behartuta, mugagailuak ezarri behar izan ziren musika-tresnerian eta itxiera-ordutegia errespetatu behar izan zen Oñatiko tabernetan. Hala, zigorra jarri zitekeen Kalezaharreko bizilagunak salaketa ezartzera behartu gabe. Araudi hori indar-indarrean dago oraindik, baina EH Bilduren udal-gobernuak ez du betetzen. Ez hori bakarrik, kalezaharrekoen keak artxibatu ere egin izan dira!

Kalezaharreko bizilagunen eskaerari fundamentuz erantzuteko, EAJ-PNVk Hirigintza Batzordean hiru data hautan: 2015-09-22; 2016-05-19; 2016-09-15 eskatu du guneko "zaraten mapa" urgentziaz egitea eta Kalezaharreko bizilagunekin, ostalariekin eta Hirigintza Batzordekideekin lan-mahai parte hartzailea eta iraunkorra osatzea ere exigitu du. EAJren iritzian, arazoa larria da. Ezin da konpondu bizilagunekin noizbehinkako batzarrak eginda!

Oñatiko EAJ-PNVk ostalaritzaren jarduera ekonomikoa babesten du, eta saiakera egin behar da alde guztien arteko adostasuna lortzeko, 2008an egin bezala. Halaxe bermatuko da oñatiarren atseden-eskubidea.

Esker onez, Aitor Burciori



Azken urteotan *Vakuro* gure bakero bitxiaren komiki-tira argitaratu izan dugu aldizkari honetan, baina atseden hartzeko unea ere iritsi zaio eta, beraz, aurrerantzean ez dugu komiki tira hau ikusiko. Aldizkari hau egiten dugunon aldetik eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Aitor Burciori, urte hauetan eskainitako laguntzagatik, eta aldizkariari kolore eta ikutu berezia emateko egindako ahaleginatik.

Saharako kanpamenduetarako janari bilketa ESKER ONEZ

Abenduaren 16 eta 17xan Oñatiko *Eroski* eta Errekaldeko *Spar* dendetan, Saharako kanpamenduetarako janari bilketa egin zan. Bi egunetan ibilli giñan elikagaiaxak batzen, eta herrixan jokaeria, oñatiarrok askotan erakutsi dogun moduan, ikaragarria izan zan. Benetan hunkittuta ikusi geben, nola batzuek arroz pakete batekin eta beste batzuek poltsa betebetiekin euren ekarpenak itten zittuain. *Bubisher* elkartiaren eta han ibilli giñanon izenian, benebenetan milla esker!!!

Eta nola ez, eskerrak Errekaldeko Spar dendakuairi, eskaiñi doskun tratatu beruakatik eta Eroskiri, emundako erreztasunakatik.

Saharako Ilargierdi Gorriaren eta Saharar Emakumeen Nazio Batasunaren deixari erantzunez, Oñatin eta Euskal Herriko hainbat herrittan batuko dan jenero dana **otsailean abiatuko den elkartasun karabana batean, Argeliako desertuan dagoen, Tindouf kanpamendura bideratuko da.**

Xabi Gesalaga eta Larraitz Legorburu



EUSKALTEGIKO MATRIKULA-ZOZKETAREN IRABAZLEA

Udaleko Euskara sailak matrikula baten zozketa egiten du urtero, Euskaltegian ikasten ari diren ikasleen artean. 2016-17 ikasturteko zozketan Isabel Rebollo izan da saritua, eta ikastaroaren matrikula moduan ordaindu zuen diru kopurua (183 €) jasoko du orain txantxitan. Roberto Altuna euskaltegiako zuzendariak eman zion saria.



PRESOEN ALDEKO ZOZKETAN SARITUA

Herriko presoan alde Gabonetan antolatutako zozketan 2422 zenbakia (ordezkoa 1561) atera zen saritua. Iban Hernando Idigoras arrasatearrak zeukan zenbaki saritua, eta berak jaso zuen oparia, gabon saski zoragarria, ondoko argazkian ikusten den moduan



ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



distira estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa
- ...

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

PISAz: garatuz eta azpimarratuz



Juankar
Olaeta

● Axola (izan) zaigu?; ezagutzen ditugu ikastetxeak? herrikoak?...? EAEko emaitzak hortik datoz, eta horiek ezagutu eta hobetu behar ditugu. Zorionez, **urtarrilaren 26an**, ikastetxe guztietako ordezkariak deituak izan ziren Lakuara bilera baterako. Bertan emandako informazioaren arabera izan diren 5 PISA frogetan EAEko emaitzak eta bilakaera jasotzen dituen webgune bat eratu dute (2003, 2006, 2009, 2012, 2015), eta horretaz gain, ikastetxe bakoitzaren parte hartzeenak ere. **Badugu beraz abiapuntu logiko bat**, ikusiko dugu ildo honetatik noraino heltzeko borondatea dagoen.

● 2016ko abenduan, orduantxe diskrezio handiz, 8 pertsona partikularrez osatutako batzordean hartu nuen parte Cristina Uriarte buru Lakuan egindako bilera batean. Bertan ISEIko buruak, orduko Hezkuntza Sailburuordeak, orduko Berrikuntza Zuzendariak ere parte hartu zuten. Euskal Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana helarazi ziguten eta iritzi- eta kontraste-txosten bat egitea eskatu ziguten abenduan bertan. Bilera hartan, oraindik argitara atera gabe zeuden **EAEko azken bi Diagnostiko Ebaluazioetako emaitzen bilakaera** eta helburu berriak aurkeztu zizkiguten. Oso kezkatuta agertu ziren Hezkuntza arduradunak aurretik ipinitako helburuak ez betetzeaz gain, batez ere bi kompetentzietan bilakaera ere negatiboa zelako, LHN eta DBHN gainera: larria zen egoera matematikan, baina ia "tragikoa" euskararen. Emaitza horiek gerora eman ziren argitara eta gaur egun denok ditugu eskura nahi izanez gero. Esan nahi baita, Diagnostiko Ebaluazioetako emaitzek ere joera garbi bat markatzen zutelara, eta alde horretatik, ez du ematen ulertzekoa denik orain PISAn izandako emaitzekin gehiegi harritzea. Kontua

zera da, zerbait hobetu behar bada, aurrez errealitatea aitortu behar dela, gustatu ala ez, eta bestalde, garbi edukitzea gauzak berdin eginez jarraituz gero, logikoa dela emaitzak ere berdintsuak izatea. Badirudi ISEI* ekitea erabaki duela, badu lana: **sistemaren beste adierazle batzuk** ere aztergai...**argazki osoa** behar dugu ezer ezkutatu gabe.

● Gure sisteman, *inklusibitatean* ondo, *bikaintasunean* eskas gabilta. Baina nola da posiblea ikastetxe barruan egiten ditugun ebaluazio-kalifikazioetan gero eta hobeak izatea eta kanpoko erakundeek kanpotik egiten dizkiguten denontzako berdinak diren kanpo-ebaluazioetan gero eta okerragoak?; **"solitarioan" tranpa** egiten dugu?

● **Adimen (H. Gardner) eta konpetentzia guztiak ere ebaluatu** behar eta aztertu, pertsonaren garapen integrala nahi badugu. PISAkoak, garrantzitsuak izanik, %25a gehienez baino ez dira. Hezkuntza Sailak badu asmo hori.

● Kompetentziak eskuratzeko **curriculum formala** (eskola) bai, baina **informala** (familia), eta **ezformala** (gizarte arloa), ezinbestekoak dira, hortaz, denok gara erantzule/eragile, eta denoi egokitzaren zaigu zer/nola gabiltzan aztertzea eta hobekuntza-posibleak identifikatzea.

● **Baliabide murrizketek** ere edukiko zuten eragina emaitzak okertze horretan, noski; baina ez erregresio zuzenean, izan ere, guk baino baliabide nabarmen gutxiago bideratzen duten zenbait herrialdetan (Estatu Espainiarraren barruan ere!) ez da gauza bera gertatu.

● **Gure BPGaren arabera beharko genukeenaren azpitik gabilta inbertitzen hezkuntzan, gainerako herrialdeen batez bestearekiko**, baina gure inbertsio-maila bera egiten duten herrien

emaitzen (oso) azpitik. Eraginkortasun ezako nitxoak ditugu: gardentasuna eta erantzukizuna behar ditugu baliabide publikoen erabileran, ISEKa* gogoan, mikrokosmosean, alegia hezkuntza komunitate bakoitzaren baitan, batez besteko orokorretan "ezkutatu" gabe.

● **Hezkuntzaren merkantilizazioa gelditu** behar dugu, eta beste parametro batzuen arabera eratu, (ikus aurreko hileko artikuluan esanahia), bestela oso zaila izango da emaitzak hobetzea.

● Goian esan bezala, Sistemaren Hobetze-plan koherentea egina dago, 2016ko ekainean. Berrikustea eta ezartzea falta. **Lan-talde berria sartu da Hezkuntza Sailean** Cristina Uriarteren mailatik bera, itxaropena ez da galdu behar.

● Sailen arteko Politika Publikoak behar dira, adibidez familia-lana kontziliazioa.

● **Nazioarteko hezkuntza komunitate zientifikoak** egiaztaturiko hezkuntza jarduera arrakastatsuak oinarri bezala hartu behar dira.

● **EAEko Hezkuntza Sistemaren Legea** eratu behar dugu, une honetan ez dugulako., elkarrekin baina beldur gabe **datuen gainean** eraikia (kompetentzien emaitzak -kanpo-barru-, inbertsioen efizakia eta efizientzia...) eta *ekitatea baina baita bikaintasuna* helburu.

● **Hezkuntza Sailak badu eskaintza zehatza ikastetxeen sare ezberdinez haragoko lan-batzorde bat sortzeko** PISAko emaitzak sakon aztertze aldera eta diagnostiko zorrotza egiteko. Badakidanaren arabera Lehendakariak berak begi onez ikusi du ekimena, logikoa, baina Hezkuntza Arduradunen berbetan "baina" bat agertzen zen bukaeran, eta horrek zalantza itzala ezartzen dio egin beharreko horri. Ausardia behar da eta dago-kionari heldu. Ikusiko dugu.

*ISEI: Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

*ISEK: Indize Sozio Ekonomiko Kulturala



caravanas **Oñate**

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Oladui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Oladui zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)




“Bai baina...”

‘Hautsak harroketan’

**NAHIZ ETA 24 ORDURO 4 EMAKUME ERAILTZEN DITUZTEN...
HOBETO SALAKETA FALTSUEZ HITZEGITEN BADUGU...**



Irudia: Maddi eta Uxue Guridi ahizpak

2016an salaketa faltsuak % 0,015 izan ziren guztira,

Beraz indarkeria matxistagatik egindako salaketak egiazkoak dira!

2015. urtean egin ziren 129.292 salaketetatik, 18 bakarrik izan ziren faltsuak. Gainera, justu kontrakoa gertatzen da: erasoen %22 bakarrik salatzen dira.

Salaketa faltsuaren mitoa matxismoaren estafa bat da, emakumeek duten eskubideak lapurtzeko, timo bat da, beti bezela gizona onurarako.

Salaketa faltsuaren mitoak gero eta gehiago irauten badu eta gero eta jende gehiagok horretan sinisten badu, gero eta onura gehiago izango dute legez botere horretaz abusatzen dutenek.

BAINA KONTURATU GARA ESTAFA HORRETAZ!!!




Summer camps

Udalekuak

Udaleku irekiak

Colonias

Colonias abiertas

Ordutegia: goizez 9:00etatik 13:00etara

Iraupena: 2 - 4 aste

Data: ekainaren 26tik uztailaren 21era
irailaren 1etik 6ra.

Jarduerak: eskulari tailerrak, kirolak, festak eta jokoak.



mondragonLingua

OÑATI
 Motxon, 7. Tel.- 943 71 60 00
 mlonati@mondragonlingua.com

> informazioa eskatu



“Entrenatzailearen lanik garrantzitsuena da pertsonengana iristea, eta pertsona horiek zugar sinistea”

ELKARRIZKETA

AITOR ORUETA

Alaves B taldeko entrenatzailea

Laugarren denboraldia du Aitor Orueta (Oñati, 1975) Alaves taldean. Kadete eta Jubenil mailako taldeak zuzendu ostean, aurtengo gloriosoaren filiala, 3. mailako Alaves B taldea, gidatzeko ardura eman diote, eta lan bikaina egiten ari da; liga txapelketaren erdia jokatuta, sailkapeneko buru-buruan daude. Gasteizen bizitzen ari den esperentziaz eta etorkizuneko asmoez hitz egin dugu Orurekin.

1go mailako talde baten filiala entrenatzen, sailkapeneko buruan... Gehigo eskatzerik ez dago, ala?

Gustora nago, bai. Nire ilusioa beti izan da futbolari ahalik eta denbora gehien dedikatzea, eta neurri batean behintzat, amets hori betetzeko aukera eman dit Alavesek. Kirol mailan gauzak oso ondo doaz, eta pertsonalki ere oso aberasgarria izaten ari da; futbol profesionalean ibilitako kideak ditut lantaldean,

eta beraien esperentziaz asko ikasten ari naiz.

Kadete eta Jubenil mailako taldeak zuzendu ondoren, aurtengo filialaren (Alaves B) ardura eman dizute. Bistan da gogoko dutela zure lana.

Alaveseko oinarritzko futboleko arduradunak konfiantza handia eman dit hasieratik. Aurtengo gauzak ondo doaz emaitza aldetik, baina aurreko urteetan izan ditut momentu txarrak, eta une horietan ere konfiantza erakutsi didate. Oso eskertuta nago. Gainera aurtengo filiala zuzentzeko nirekin kontatu izanak konfiantza eta indar handia eman dit lanean jarraitzeko.

3. mailan ari da Alaves B, baina talde profesional baten egitura zaude. Zertan igarten da?

Jokalariei ilusioa, batez ere. Badakite detaile txiki bat falta zaiela saltoa emateko eta, beraz, inork baino gogo eta ilusio handiagoa dute.

Bestalde, Pitermanek utzi zuen zuloa eta ezegonkortasun egoera gainditu ondoren (iaz atera ziren lege konkurtsaletik), kluba urtetik urtera sendotuz doala ikusten ari naiz, bai instalazioetan, bai lantaldean...denean.

Nolako dedikazioa eskaintzen diozu entrenatzaile lanari?

Aste barruan atsedeen egun bat izaten dugu. Gainerakoan, 14:30etan Oñatitik irten, 16:30etan entrenatu eta 20:00etan bueltatzen naiz. Atsedeen egunak aprobetxatzen ditut aurkariaren edo gure parti-



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak



Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Larrañeta buzoa, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI



Baserriko agia, egurrezko labeon



Alaveseko Filiala zuzentzeko nirekin kontatu izanak konfiantza eta indar handia eman dit lanean jarraitzeko”

duetako bideoak ikusteko eta analisiak egiteko.

Asteburuetan, gure partiduaz gain, aurkarien edo klubeko beste taldeen partidu batzuk ikustea gustatzen zait. Aurreko urteetan entrenatu ditudan mutilen jarraipena egiten ere saiatzen naiz, eboluzioa ikusteko.

16 partidu irabazi, 4 berdindu eat 3 galduta, sailkapeneko buruan zaudete. 2.B mailara igotzea da helburua?

Helburu garrantzitsuena da jokalaria prestatzea lehenengo talderako. Horren ondorioz 2.B mailara igotzeko play off-ean sartzen bagara, askoz hobeto. Ondo ari garen seinale. Baina mailaz igotzea izan behar da kontsekuentzia bat.

Baina 1go mailako talde baten filialak ez al luke 2.B mailan egon behar?

Hobe izango litzateke, bai. Asteburuetako konpetizioaren exigentzia handiagoa delako, eta jokalaria “profesionalagoak” direnez, hobeto zaintzen dutelako ikusten ez den entrenamendua: atsedena, janaria...

Ez da denbora asko galdu behar jokalarien gabeziak zuzentzen; hobe da jokalarien dohaiei etekina ateratzea taldearen mesedetan”

20,5 urteko jokalaria dituzu taldean. Zer erakutsi nahi izaten diezu adin horretako mutilei?

Inportantea da entrenatzailea kontziente izatea laguntzeko dagoela, eta jokalaria direla protagonistak, ez bera.

Hortik aurrera, nire helburua da jokalaria bakoitzaren dohaiek taldearen zerbitzura jartzea. Ez da denbora asko galdu behar jokalarien gabeziak zuzentzen; hobe da jokalarien dohaiei etekina ateratzea taldearen mesedetan. Eta gure lana da, taldean ditugun jokalarien ezaugarriak kontuan hartuz, joko-idea kolektibo bilatzea.

Nik banekien indibidualki talento handiko jokalaria nituela aurten. Horregatik, batez ere, baloi gabeko jokoa ari gara lantzen. Denboraldi hasieran garbi esan nien: urte bukaeran gorago edo beherago egongo gara jasotako golen arabera, banekielako golak sartuko genituela. Oraingoz, 21 partidutan 7 gol bakarrik sartu dizkigute.

Laugarren denboraldia egiten ari da Orueta Alaves taldean. Aurten filiala (Alaves B) zuzentzen ari da, 3. mailako taldea, eta sailkapeneko buruan daude



Ez nuke beldurrik izango Alaves taldea hartzeko. Jokalaria pertsonak dira, eta nik ez daukat beldurrik pertsona talde bat zuzentzeko inon”

Adin horietan, eta filial batean egonda, normala da jokalaria txori asko izaten buruan. Nola kudeatzen da hori?

Psikologa bat daukagu klubean eta, tarteka, talde dinamikak egiten ditugu, kohesioa eta helburu kolektiboak lantzeko. Eta erantzuna oso ona izaten ari da. Zorionez, nahiko helduak dira jokalaria. Badakite garrantzi handia ematen diogula indibidualki dauzkaten dohaiek kolektiboaren zerbitzura jartzeari.

Harrobiko jokalaria gutxi daude lehen mailako taldean. Harrobia behar beste zaintzen al du Alavesek?

Ni Alavesera iritsi aurreko urtean sartu zen Josean Querejeta, eta berak oso garbi esan zuen: harrobia izan behar da abiapuntua. Eta egia esan, lau urte hauetan ikusi dut gero eta gehiago inbertitzen dela oinarritzko futbolean.

Une honetan harrobiko bi jokalaria (Galilea eta Llamas) daude lehen taldean (Manu Garcia eta Toquero ere arabarrak dira), eta helburua izan behar da jokalaria gehiago ateratzea harrobitik. →

OÑATI GARBKETAK S.L.

- Komunitate, garaje...garbiketa integrala
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñati 17 behea, esk. / Tel.: 722 733 712
argitagarbi@hotmail.com



ARGITAGARBI

Almaraz

Immobilari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

“Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu”.

Nire taldean badaude 6-7 jokalarri profesional izateko gertu daudenak, eta ziur nago laister ikusiko ditugula Alavesen edo beste nonbaiten.

Nazional mailako entrenatzailer tituluak daukazu. Jarraitzen al duzu formazio lanarekin?

Bai. Eentrenatzaileen komiteak ikastaro eta biltzar ezberdinak antolatzen ditu denboraldi amaieran, eta urtero joaten naiz ikastaro pare bat egitera.

Horrez gain, liburu eta sare sozialen bidez saiatzen naiz egunean egoten, bai taktika-teknika aldetik, eta baita arlo psikologikoan ere. Nire ustez, entrenatzailearen lan garran-tzitsuena da pertsonengana iristea, eta pertsona horrek zuzen sinistea. Hori lortzen badu entrenatzaile batek, emaitza onak lortzetik gertuago egongo da.

Futbolekin bizitzea da zure ametsa. Bizirik dirau?

Bai. Ametsetatik eta ilusiotik bizi naiz ni, baina badakit oso zaila dela. Gaur egun jokalarri ohi asko daude entrenatzaile eta kirol zuzendari postuetan, eta gu bezalako entrenatzaile arruntentzat oso zaila da futbol profesionalera iristea.

Nik nire esku dagoena (lana, konpromisoa, ilusioa...) jarriko dut, eta aukera sortzen bazait, oso ondo; bestela, ez daukat inongo arazorik biharko egunean Aloñara bueltatu eta Oñatiko neska-mutikoekin esperientzia konpartitzeko.

Une honetan prest gongo al zinateke Alaveseko lehen taldea zuzentzeko?

Ez nuke beldurrik izango. Azken batean pertsonak dira, eta nik ez daukat beldurrik pertsona talde bat zuzentzeko inon. Desberdintasun edo zailtasun handiena, seguruenez, taldearen inguruko guztia kudeatzen jakitean dago: komunikabideak, direktiba, zaletuak... Baina hori esperientziarekin ikasten da.

Binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdia eta harrijasotzaileen txapalketako finala Oñatin

Otsailaren 19an, igandea, eguerdiko 12:00etan hasita, Binakako Urrezko Aizkora Txapelketako finalerdietako bat jokatu da Zubikoa kiroldegian. Mugerza-Atutxa eta Lopez de Azpilikueta-Otaño bikoteak ariko dira nor baino nor

Urrezko Aizkora txapelketa ikusgarria eta bizia izaten da, aizkolariek modalitate ezberdinetan lan egin behar izaten dutelako: zeinek kolpe gutxiagotan, zeinek azkarrago, egurra zutik, etzanda... Proba bakoitzean lortutako puntuen batuketak erabakitzen du irabazlea.



HARRIJASOTZAILEEN FINALA

Urrezko Aizkora txapelketarekin batera, aurten lehen aldiz harrijasotzaile gazteen txapelketa ere jokatu ari da, eta Oñatin finala ikusteko aukera izango dugu. Izagirre eta Peñagarikano ariko dira, nor baino nor, pisu eta forma ezberdineko harriekin lanean, bi minutuko txandetan. Goi mailako herri kirol ikuskizuna izango da, punta puntako kirolariak ariko baitira lehen. Sarrea doan.



MARTXOAK 4-5 MENDIKO ESKI IRTEERA

Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuta, mendiko eski irteera egingo da martxoaren 4-5ean. Oraindik erabaki gabe dago nora. Otsailaren 15erako erabakiko da, elurraren arabera, eta emailaz jakinaraziko zaie bazkideei.

Mendi saileko bazkideei zuzendutako irteera da (lekua egonez gero, beste edozeinek parte har dezake). Federatuta egon behar da, eta ezinbestekoa da Arva, pala eta sonda eramatea eta erabiltzen jakitea.

'Mendiak eta Herriak' enpresako adituek egingo dituzte gidari lanak. Larunbatean goizeko 6ak aldera irtengo da autobusa Oñatitik. Aterpetxe batean emango dute gaua. Prezioa: 75€. Izena emateko: alonamendi.mendi@gmail.com

MENDI IRTEERA Urkiolako Parke Naturalera

OTSAILAK 19

Aloña Mendiko otsailerako antolatu duen mendi irteera Urkiolako natur parkean barrena egingo da. Mañarian abiatu eta Errialtabaso (1.011m.) eta Saibigaina (945m) gailurrak zapaldu ostean Urkiolan amaituko da ibilaldia.

Guztira 12 kilometro, eta 950m.ko desnibela, 5 bat ordutan egiteko modukoa.

Irteera goizeko 8etan postetxean. Izena emateko epea: otsailak 16, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa: 10€. Federatuta egon behar da.



TXINPARTA

bertso eskolia



‘Txinparta’ izena
izango du aurrerantzean
Oñatiko bertso eskolak,
Jose Mari Agirrebengoa
zenaren omenez

Oñatiko Bertso Eskolaren sorreran egin zuen lana gogoratu, *Txinparta* ezizenez ezaguna zen Joxe Mari Agirrebengoa izena eramango du aurrerantzean herriko bertso eskolak.

Udaleko kultura teknikaria izan zen *Txinparta* Oñatiko Bertso Eskola sortu zenean, eta bera izan zen bultzatzaile nagusia Isidro eta Xabier San Migel, Benito Barrena, Emilio Urzelai eta Daniel Agirrerekin batera.



Horregatik, legeak hala eskatuta, elkartearen erregistro ofizialean izena eman behar izan duten honetan, herriko bertso eskolako kideek ez dute zalantzarik izan izena aukeratzeko orduan. “Jose Mari zenak ekarpen handia egin zion bertso eskolari, eta lan hori aitortu eta eskertzeko modu bat da *Txinparta* izena jartzea herriko bertso eskolari” adierazi dute eskolako ordezkariak, gainerako sortzaileek egindako lana ere goraiapatuz.

Kontzejuri | 32 | peticik

Oñatiko bi talde, Gipuzkoako herriarteko txapelketan

Otsailaren 11n *Txinparta-1* eta Oiertzungo *Martzeliña* ariko dira Oinarri elkartearen

Oñatiko bertso eskolak bi ordezkari izango ditu datozen asteetan jokatu den Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan. Herri eta eskualdeetako bertso mugimenduari bultzada ematea eta elkarren arteko harremanak sendotzea da helburua.

Auzolanean antolatutako txapelketa izango da, eta hala, talde bakoitza sei kidez osatuta egongo da: hiru bertsolari, gajartzaile bat, epaile bat, eta antolakuntzarako ordezkari bat.

Kanporaketa saioak formato ezberdinetan jokatu dira. Horietako bi Oñatin izango dira. Otsailaren 11n bertso-afari formatoan ariko dira ***Txinparta-1*** eta Oiertzungo ***Martzeliña***, Oinarri elkartearen. (Sarrerak, 12€, Txokolateixan salgai). Bestalde, martxoaren 12an Pako tabernan (19:00, sarrera doan) ariko dira ***Txinparta-2*** eta ***Karidadeko Benta*** (Zizurkil/Asteasu) taldeak.

Bestalde, ***Txinparta-2*** taldekoak Zarautzen ariko dira otsailaren 3an (Txiki Polit tabernan, 19:30), eta ***Txinparta-1*** taldea Zumarragan ariko da martxoaren 11n, Amalur elkartearen.



TXINPARTA 1: *Bertsolariak:* Joseba Lasagabaster, Urko Egaña eta Andoni Goitia; *Gajartzailea:* Mirari Sagarazu; *Epailea:* Julen Iriondo; *Ordezkaria:* Iñaki Olalde



TXINPARTA 2: *Bertsolariak:* Maider Arregi, Gontzal Belategi eta Urko Arregi; *Gajartzailea:* Egoitz Atxaga; *Epailea:* Beñat Alberdi; *Ordezkaria:* Xabier Igartua

Izena ez ezik, irudia ere berritu du bertso eskolak. Mirari Sagarzazu taldeko kideak sortu du irudia. "Jose Mari oroitzeaz gain, bertsoa sortzeko beharrezkoa den txinpartari egin nahi dio erreferentzia" adierazi du.

60 LAGUNETIK GORA

Izena eta irudia berritu baditu ere, Oñatiko bertso eskolak ohiko jardunarekin jarraituko du, bertsoarekiko zaletasuna transmititu eta sendotzeko helburuarekin.

Zorioinez, *Txinpartak* eta gainerako sortzaileek erein zuten hazia sendo errotu zen, eta aurten 34 urte betetzen dituen Oñatiko bertso eskolak osasun ona daukala esan dezakegu. Gaur egun adin desberdinetako 50 bat lagunek osatzen dute taldea, eta urte berriarekin batera beste 20 neska-mutiko batuko zaizkie, eskoletan egiten ari diren 'Gu ere bertsoan' programaren bidez.

'KAFKAREN AULKIA'

bertsoa, literatura eta musika uztartzen dituen saioa
otsailaren 12an, igandea, Gaztelekuan, 19:00

Uxue Alberdi bertsolari eta idazleak sortu duen 'KAFKAREN AULKIA' emankizun berriaz gozatzeko aukera izango dugu otsailaren 12an.

Bi bertsolariek (Uxue Alberdi bera eta Andoni Egaña) idazle batek (zehazteke) eta musikari batek (Pello Ramirez) hartuko dute parte, bertsoa, literatura eta musika uztartzen dituen saio berezi honetan.

Idazleak testua jarriko du (poema bat, ipuin bat, hitzaldi literario bat...), emankizunaren ardatza izango den errelato nagusia, eta bertsolariek pertsonaia literarioen ahotik zein euren ahots propioetik kantatuko dute, narrazioari koloreak, atmosferak eta kanpo-begiradak gehituz, Pello Ramirezen txeloaren eta akordeoiaren doinuen gainean.



Uxue Alberdi eta Andoni Egaña bertsolariek, Pello Ramirez musikariak eta idazle batek parte hartuko dute. Sarrera doan

BERTSO-PAPER LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

'Kafkaren aulkia' saioa hasi aurretik 17:00, Txinparta Bertso Eskolak eta Gaztelekuak antolatutako gazteentzako VIII. Bertso Paper lehiaketari dagokion sari banaketa egingo da. Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikasleek parte hartu dute, bi mailatan banatuta.

Zazpi oñatiar Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan

Txinparta bertso eskolako zazpi kidek parte hartuko dute Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek antolatzen duten Eskolarteko Txapelketan.

14-18 urte arteko gazteei zuzendutako bat-bateko txapelketa hau otsailaren 17an hasiko da, eta bertso afari formatoan jokatuko dira kanporaketak.

Oñatiko ordezkariak ez dakite oraindik noiz eta non abestu beharko duten, baina kanporaketa saioetako bat Oñatiko Larrain Gain elkartearen izango da, martxoaren 3an. Afarirako txartelak www.bertsozale.eus atarian erosi beharko dira.



Xabier Agirre, Gontzal Belategi, Urko Arregi, Aritz Irigoien, Haritz Olaeta, Bittor Zubiagirre eta Aitor Tatieggi, bat-bateko Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan parte hartuko duten oñatiarrak.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
ka'le barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

AGENDA

02

OTSAILA



AUTOFORMAKUNTZA

> OTSAILAK 8 / 18:30

JJORGE OTEIZAREN
PENTSAMENDUA

Hutsunearen alde, artisten kontra, 14 apostoluen alde... Jorge Oteizaren pentsamenduaren inguruko autoformakuntza saioa egingo da 'Quosque Tandem...!' liburua oinarri hartuta (Gaztetxean).



BILERA IREKIA

> OTSAILAK 23 / 18:00

HOTZ-OÑATI

Hotz-Oñati taldeak urte bat beteko du laister, eta bilera irekia egingo du hilaren 23an Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18). Herritar guztiak daude gonbidatuta.

DANTZA ETA UMOREA 'Tio Teronen Semeak'

> OTSAILAK 18

Foruen enparantzan, 12:00

Euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituen musika eta dantza taldea da Tio Teronen Semeak taldea, eta *FreshCool* ikuskizuna eskainiko dute. Euskal dantzak eta parranda dira emanaldiaren oinarriak; herriz herri saltoka, giro paregabea sortzeko gai dira. Ikuskizun berri honetan dantzariek, inolako konplexurik gabe eta umore-sen handiz, betikoa egingo dute, baina orain arte inoiz ikusi ez den bezala. Donostialdeko eta Oarsoaldeko hainbat dantzarik osatzen dute taldea. Zuzeneko musikak ere protagonismoa hartzen du batez ere perkusioak.

KONTZERTUAK

> OTSAILAK 4 / 22:00

W.C.+TXUA+TXIPITTU

Punk, rock eta oi! doinuak Gaztetxean. Oñatiko *Txua* taldearen lehen kontzertua izango da herrian. Gaztetxean.

> OTSAILAK 10 / 22:00

JOSEBA B. LENOIR GANG +
NORMAN

Berako *Joseba B. Lenoir* musikariak gidatzen duen boskotea eta Eibarreko *Norman* rock taldea Gaztetxean.

> OTSAILAK 11 / 22:00

SHARON STONER+TUTAN
COME ON+Anestesia Bertsioak



Ernaik antolatutako kontzertua. *Sharon Stoner* oñatiarrak eta *Tutan Come On* Gasteizko bikoa. Herriko talde batek *Anestesiaren* bertsioak joko ditu. Gaztetxean.

> OTSAILAK 17 / 20:00

VIVA BAZOOKA

Gasteizko rock taldearen kontzertua. Ona tabernan.

> OTSAILAK 19 / 12:45

MUSIKA BANDA

Iñazio Ibarrondok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua. Santa Ana.

> OTSAILAK 24 / 22:00

TOOTH + FUMUT

Lazkao-Ordizia eta Gernikako post hardcore taldeek beraien diskoak aurkeztuko dituzte. Gaztetxean.

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



PAILAZOAK

> OTSAILAK 28 / 17:00

KIKI, KOKO ETA MOKO

Inauteri jaietan Kiki, Koko eta Moko pailazoek Katapult-xispun ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera 2€. Kiroldegian.



IKASTAROAK

> KZ GUNEA / OTSAILA

'Bapateko mezularitza zure smartphonean'; 'Ofimatika orokorra'; 'Wordpress: zure webgunea sortu'; 'Argazki ukitua GIMP erabiltza'; 'Gazte lan bilaketa eta YouRock'; 'Erosketa eta salmenta seguruak Internet bidez'; 'Bideo-konferentziak'. Informazioa: 943023672/onati@kzgunea.net

'KAPUT' KLOWN IKUSKIZUNA

> OTSAILAK 24
SANTA ANA, 22:30

Ganso&Cia taldearen eskutik 'Kaput' ikuskizuna. Bi zororen eta auto baten ihes geldia kontatzen digu. Barretik eta optimismotik gerren drama unibertsalera eta bere zehazkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hungigarri, urratzaile eta zentzugabekoa da. Dibertitzeko eta publiko guztiak (5 urtetik gora) hunkitzeko gai den hitzik gabeko bidaia. Sarrera: 10€ (aurrez salgai <http://bibe.me>).

Pertsonaia eta dantza berriak aurten Oñatiko Inauterian

Otsailaren 25ean ospatuko da aurten Oñatiko Inauteri festa. Goizeko 11,30etan Olakuan abiatu eta egun osoan zehar ibiliko dira ehunka herritar kaleak girotuz. Arratsaldeko 20:00ak aldera izango da amaiera ekitaldia plaza. Aurten, gainera, berritasunak izango dira. Ikusleak zirikatzen ibiliko diren pertsonaia berriak izango dira eta, gainera, Harkaitz Allurrek konposatutako doinuarekin sortutako dantza ere estreinatuko dute. Otsailaren 4, 11 eta 18ko entsaioak Larrañako pilotalekuan izango dira.



LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Haur liburua

"Zer demontre dago..."



Haur liburua

"Hamaika galdera dinosaurioekin..."



Liburua

"Territorio Felicidad"



DVD haurrak

"Paw Patrol"



Liburua

"La cocina de las legumbres"



Liburua+CD+partiturak

"Trikitixa liburua"

MERKATU TXIKIA

> Oñatiko emakumea. Arduratsua. Era ezberdinetako lanak egiteko prest: garbiketa lanak, pertsonen zaintza edo laguntza... Egun erdiz, orduka, edo komeni den moduan. Urgentea da. Interesatuak deitu: 688603052.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

GUARDIAKO FARMAZIAK



ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Otsailak 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26, eta martxoak 5 eta 6.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Otsailak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Otsailak 1, 2, 10, 11, 12, 20 eta 21, eta martxoak 1 eta 2.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Otsailak 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23, eta martxoak 3, 4 eta 5.

Argi pultsatu bidezko fotodepilazioa (IPL)

Depilazio itzunkorren sistema modernoa eta berritzaileena.

FOTODEPILAZIOA OPARI TXARTELAK
IPL GAZTETZEA AZALEKO GARBIKETA

Jarrai gaitzazu
facebook

Olakua 1

943716713

onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

Oñati kalerik kale

Aldizkari honetako aurreko zenbakietan gure herriko baserri-giroko hamasei auzoren deskribapen laburtxoak hilerik eman dugun bezala, hurrengoetan Oñatiko kaleen berri eskaintzeko asmoa dugu, oraingoan Xabier Zelaiarekin lankidetzan. Zeregin luzeagoa eta bestelakoa izango da, seguruenik, hirigune oñatiarrak mende askotan izan duen garapena eta bilakaera azaltzea ez baita hain erraza. Ahalik eta erarik argiengan erakusten saiatuko gara.

Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia.

> Sarrera moduan

Bere sorrera eta izaerari dagokionez, Oñati herri berezia izan da historian zehar. Ez dauka inguruko beste udalerririk bazterrekin antz handirik: hiribildua ez denez, ez du jaiotze-datarik eta agiririk, Gatzaga, Arrasate, Bergara, Elgeta, Soraluze, Eibar edo Urretxuk bezala. Hasiera-urterik ezagutzen ez badugu ere, badirudi Oñatik herrigune garrantzitsua osatzen zuela Erdi Aroaren azken gizaldiak ezkerre gutxienez, XII. mendetik aurrera agian. Lehenik, Arabako **Gebara leinu ospetsuaren jaureria** genuen XV.era arte; eta gizaldi horren hondar herenetik-edo, **Oñatiko konderearen tituluaren jabe izan dira gaur egunera arte Gebara familiakoak** eta euren ondorengoak. Konderriak, berez, 1845erarte iraun zuen, gure herria orduan sartu baitzen Gipuzkoako probintzian, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Aipatu berri dugunak baldintzatu zituen gure hiriguneko kale eta auzoen eraketa eta antolamendua. Hipotesi gisa, aspalditxotik adierazi izan dugu Gebaratarren **Zumeltzegei dorretxearen beheko partean gauzatuko zela Oñatiko lehenengo gune kaletarra**: oraingo Mendiko kale, San Anton-Zumeltzegei kale eta Kale Zaharreko ingurumarietako zati batzuetan, jauntxoaren agintaren hedapen legez. Dena dela, Antzuelas-Arranoaitz errekan gora zabaltzen zen eremua ere (oraingo plaza nagusitik gorakoa) kalez eta etxez laster bete zela sinesteko arrazoiak badaude; hau da, **Erdi Aroan bertan eraiki zirela Kale Barriko, Atzeko kaleko eta Santa Marinako alderdi batzuk.**

Erdi Aroan

Rosa Ayerbe historialariak Oñatiko kondereen Madrileko artxiboan aurkitutako Ordenantza Zahar batzuetan (1470) garbi esaten zaigu nondik **norainokoa zen orduko Oñati: Zubiaurreko zubitik** (oraingo Iturritxo ondotik) Oraiturriraino [sic], hau da, egungo agustindarren eliza ondoraino, **Olaiturriraino** alegia. Beraz, Arranoaitz-Antzuelas errekatxoak bereizten zituen bi auzo nagusiak taxutu samartuta zeudela frogatzen digu horrek: uraz handiko eta uraz hemendiko etxe- eta kale-guneak, hain zuzen ere.

Sorrera eta izaerari dagokionez, Oñati herri berezia izanik, bere hirigintzaren bilakaeran ere igartzen da hori

Egoera hori, ordea, sakon aldatu zen 1488an, urte hartan sute beldurgarri batek zeharo suntsitu baitzuen goiko aldea: orduko Kale Barria, Atzeko kalea eta Santa Marina zeharo kiskalita geratu ziren: izan ere etxerik gehienak zurez eginak genituen eta lasto, belar eta liho ugari gordetzen zuten; gainera errementari askok lan egiten zuten kale horietan eta, haizete baten laguntzaz ziurrenik, erabat erraustuta gelditu zen herriaren goiko parteak. **Behekoa** (Kale Zaharra eta inguruak), zorionez, **ez zen erre**, aipaturiko errekek suten-lanak egin zituen-eta.

XVI.etik XX. mendera arte

Sute ikaragarri hark **ondorio inportanteak** erakarri zizkion Oñatiko herriaren **hirigintzari nahiz eraikuntza-sistemari**: zura baztertzeke, **harri gehiago** erabiltzen hasi ziren etxeak egiteko; errementari, forjari eta *ultzegein* gehienek Ubao erreka bestaldera pasatu behar izan zuten; orduan jaio ziren **errebalek berriak**, hau da, Bidebarrieta, Zubibarri, Lekunbarri eta Auzabarri, besteak beste; Kale Barria luzatu egin zen, egungo Etxaluzeraino lehenbizi (Kale Goiena izenez), eta geroxeago Auzotxoraino (Marzelino Zelaia kalea egun).

Kiskali ez zen beheko parteak ere luzatuz joan zitzaigun pixkanaka XVI.etik aurrera, Kurtzekoraino iritsi arte. Kanpantxoko errebala orduan erantsiko zen. Orain Madina kalea denaren ezkerrekoa ia guztiz itxuraldatu zen, XIX.aren amaieran laterandarrek euren komentu-seminarioa eta eliza jaso zutenean, hartarako etxe-ilara osoa bota zelako. Eta antzinako Santa Marina auzo historikoak aldakuntza ugari izan zituen garai hauetan; guri heldu zaizkigunak XVIII-XIX.etakoa eraikuntza batzuk izan dira, XX. mendeko ordezkapen eta berrikuntzekin batera.

XVI.ean eginak dira Oñatiko zenbait eraikuntza bakan eta bikain: Bidaurreta, parrokiako klaustroa eta hainbat aldare, ospitalea, unibertsitatea, Santa Ana eta abar. Baina, hirigintzari dagokienez, 400 urtetik gora duen aro honetako obrarik nagusia **Plaza Barria** dugu, askoren iritziz. Gora-



behera eta eten asko eduki zuen prozesu luze baten ondoren, XVIII-XIX. mendeetan egituratu zen zatika eta epeka gure plaza nagusi dotorea: bi erreka estali eta gero, tar-te horretan gauzatu ziren **udaletxeak, arkupeek, pelotaleku berriak eta lorategiek** emango zioten Oñatiko Foruen enparantzari eta bere ingurumariari herritar zein kanpotar askok miresten eta goraiatzuten duten itxura ederra.

XX-XXI. mendeetan

Ekonomia aldetik, joan den gizaldiko lehenengo hamarkadak ez ziren samurrak izan Oñatirentzat: 1921era arte ez zuen hemengo industriak bururik altxatu, baina 1929ko depresioak, errepublika denborako gorabehera eta gatazkek eta, batez ere, 1936ko gerra zibilak ekarritako hondamendiak aukera gutxi eskaini zioten hazkunde demografiko nahiz urbanistikoari. **Damian Lizaurrek 1934an moldatu zuen Oñatiko hiri-planoak ez zuen, egia esan, 1848an Francisco Coellok marraztutakoarekin alde gehiegi.**

Gerra osteko gose-urterik latzenak igaro ondoren, fabrike-

tan lan gehixeago zegoelako-edo, ekin zitzaion **etxe-bizitza berriak** eraikitzeari, **Lezesarriko Roke Azkune kalean** (1953) lehendabizi. Berehalaxe egin ziren Moiuia kalearen eskuma aldean beste bizitza banaka batzuk (Xabaloneko etxeak). Geroxeago etorriko ziren **Lizaur kalekoak, Matingoa eta Etxaluzeko poligonoak, Errekaldekoa, Olakoa, San Lorentzokoak**, fase eta epe desberdinetan moldatuak 1960-1970 hamarkadetan. Aldi baten ondoren, 1980 inguruko krisia tarteko eta ikusirik, non-bait, herriko etxe-premiak aski aseta zeudela, ez zen poligono berririk jaso puska batean. Azkenak, garrantzitsuenak behintzat, **Bidebarrieta, Ugarkalde, Goiena, Auzabarri, Urbieta eta San Martingoak** izan dira, Aingeru Guardakoaren ondoan egin diren era desberdinetako etxeak ahaztu barik.

Ohartuko zineten honezkeroko, egin-behar luze eta nekoso samarrean sartu garena. Izan ere, hasieran aurreratu dugun lez, Oñati herri berezitzoa izateagatik, baita hiri-gintza-arloan ere, harrobi oparo eta aberatsa da horrelako artikulua-sail bat idazteko. Gustatuko zaizuela uste dugu eta sorpresatxoren bat izango duzue kale-izenekin eta beste hainbat bitxikeriarekin. Datorren hilera arte!

XX. mendearen bigarren erdira arte astiro samar aldatu zen Oñatiko herrigunea. Etxe-poligono berriak azken 60 urtetan eginak dira

ANTSIETATEA
ESTRESA
FIBROMIALGIA
DEPRESIOA...

Psicología Zentroa
ROSA RUEDA

Zubilaga Auzoa, 20

943 04 74 06
psicologia-rueda@cop.es
www.psicologiarosarueda.com

Amalia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera libertzak

tel: 677 31 20 57 • email: amaliagartua@gmail.com • Oñati



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

Ateraldixa

'Hiru Iruatzak eta hiru Garagaltzaak baiño gurago, hiru Gesaltzaak'

Graziano Anduaga, Gesaltzako aittona
Oharra: Iruatz = Idigoras, forma idatzixan



Hiru Iruatzak



Hiru Garagaltzaak



Hiru Gesaltzaak

Lurraren izenak

Gu aillegaitterako mundua bada izen bitxiz betia: Olaa, Triana, Mojasoro, Udana.

Lurraren izenak zubixak dira, denporiaren uberak. Zañartu, Ubao, Olapoto, Berezao.

Ezkara lehenenguak hemen honeittan berbetan ibillixak. Osinurdin, Garai, Aunzerreka, Garibai

Gizaki musika hartu dau lurrak, lurrotsa gizakixak. Murguzur, Koroso, Jaumendi, Torreauzo.

Lurrari loturik leku-izenak, gu bagoiaz igaroz. Duru, Mirubizkar, Zubillaga, Goribar.

Denbora bere lekura, Gerardo Markuleta (Erein, 2016) (moldauta)
Poema horrekin abesti bat egin zan: Jabier Muguruza (eta Pablo Guerrero), *Tonetti Anaiak* (Resistencia, 2015) Hemen entzun leike: <https://play.spotify.com/artist/0sFuliOYc4LmIU6CswvY3c>

EZ KIKILDDU,
EZ LOTSATU

Fan aditza

Aditz forma hau, hain geuria eta hain bakana dala uste doguna, hemetik kanpora be ebaltzen da, eta geure herriko muga inguruan ez eze, urriñago be entzuten da, adibidez: Leintz aldian, Aretxabaletan eta Eskoriatzan normala da **fan** entzutia, Aramaixon **fuén**, Sakanan (Etxarri Aranatz, Lakuntza...) be **fan** entzungo dozue Zangotzako merindadeko Erroibarren eta Artzibarren moduan; Pirinioetako baillaretan: Aezkoan (**fein**), Zaraitzun eta Erronkarin be agiri da, eta Hondarrribian joan esan biharrian: **Fa, faz, faki, fakiyaz, fango, faze** esaten daue. Eta **Juane** pertsona-izenaren ordez, **Fane** be ohikua izan da gure artian.

Beraz, ebali degigun **fan** hau bilddur barik, kanpuan be entendiuko doskue-eta!

Eta hori ebalterakuan, jakina, ez kikilddu eta ez lotsatu zeure euskeriarekin.

Zein auzotan dagoz *ola-* aurrizkixagaz osotutako baserri eta leku-izen honeik?

- | | |
|----------------------------|------------------------|
| 1. Olaitturri ¹ | A. Zubillagan |
| 2. Olabbarri | B. Urrusulan |
| 3. Olaburu | C. Zubillagan |
| 4. Olalde | D. Larrañan |
| 5. Olajaungoa ² | E. Unibersidade ostian |
| 6. Olate | F. Otadui zuhaiztixan |
| 7. Olapoto | G. Olabarrietan |
| 8. Olakua | H. Olabarrietan |
| 9. Olan | I. Larraña behian |
| 10. Olaetxebarri | J. Murgixa barrenian |

Oharra: (1) *Oraiturri* izan bihar da jatorrizko izena. (2) *Meltxorrena* gaurko egunian

Billatu berba honein sinonimuak

- | | |
|------------------|--------------|
| 1. Esplikau | A. Bukatu |
| 2. Berba egin | B. Nahi izan |
| 3. Ixiotu | C. Etorri! |
| 4. Amaittu | D. Hitz egin |
| 5. Itxungi | E. Piztu |
| 6. Gura izan | F. Eseri |
| 7. Erdú! | G. Erori |
| 8. Jasarri | H. Kasu egin |
| 9. Jausi | I. Azaldu |
| 10. Jaramon egin | J. Itzali |



Plantxetako pulimentuko langilliak

Ez eben horrenbeste iraun, baiña hiru hamarkada t'erdittan makinatxo bat gizakumek eta emakumek jardun euen lanian Iba-Errako zelaixaren ertzian, erreka onduan, Barrentzelaiñeko zerraren albuan egon zan **plantxa-fabrikan**.

Gerra aurretik Zumarragako **Buscatarrak zuma-lantegixa** jarri euen hantxe bertan, 1923an, horretarako jasotako pabelloi txiki batian, hau da, zesterixa bat; gerra denboran soldadu matxinuen lo-lekutarako aprobetxau zan 1936ko udazkenetik 1937ko erdira arte-edo. Gerria amaittu ez, baiña Oñattitik urrindu zanian, enpresa barri bat jarri zan instalaziño horretan: **DYNA** izenekua, **plantxa elektrikuak egitteko**; ordura arte, erropak plantxaitteko, ikatz gorittuez beteten ziranak edota sukalde ekonomikua- ren txapiaren gaiñian berotutako plantxak ebalten ziran.

DYNAk lantegi zaharraren aldamenian, Ubao erreka ertzian, pabelloi barrixa jaso eben 1943an, Damian Lizaur arkitekto oña- tiarraren planuen arabera. Hala ta guztiz be, etxaten negoziua oso ondo suertau, eta 1948 aldera sozio batzuk Bittorixara fan ziran, han kremallera-fabrikia zabalketara. Dana dala, Oñatiko enpresiak jarraitu eben plantxagintzan, baiña beste jabe batzuekin. Eiba- rren ziharduen **SOLAC** plantxa-fabrikan sozio izandako bik erosi euen hemengua, **SOLAUN** y **RUBIO**, S. A. firma barrixa sor- tuaz.

Esan dogunez, **emakume mordoskiak lana egitten eben enpresa honetan**: montajian edo ofizinan; bestelako sekziño danetan gizonetzkuak. Esate baterako, gaurko argazkixan datozenak **pulimentuko langilliak** dittugu: zeregin gogorra eta zikiña izaten zan, piezak makiñetan pulidutten hauts asko ataraten zalako, eta orduko segurtasun- eta higiene-neurrixak etziran gaurkuak lakuak.

Ezkerretik eskumara honeitxek dituzue obreruok: **Atzekaldian**: Joxe Artza, Kale Zaharrekua; X. X.; Joxe Mari Biain, Kanpantxoko *Txorriña*; Bittor Kerejeta, Kale Zaharrekua; eta Xanti Zelaia, Lekunbarrikua. **Aurrekaldian**: Esteban Letamendi, Kale Zaharre- ko *Sarrikona*; eta Kalisto Lucas, Donostiatik Kale Zaharrera etorritakua. Sail horretan urtietan jardundako beste bi langille eza- gun Grogorio Lizarralde *Kapo*, eta Julio Ros *Txatua*, eibartarra, izan ziran.

J. E.

Fotografixa Fernando eta Ixiar Artzak eskuratu doskue, Miren Maiztegiren laguntzaiaz. Argibidiak, berriz, aurrekuai eta Maixabel Elortzari zor dostegu. Eskerrik asko danoiri!

grupo
amuebladora
mondragonesa

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 79 15 03

ARRASATE



ETORRI ETA IKUSI GURE ERAKUSKETAK
KONPROMISORIK GABE!



centro hogar MUEBLES

ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

ARRASATE



ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11

ARRASATE